

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

71b7663549205095e16298368bd0930895a2183c29e750c6688757b0803f43da

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2025EKO MAIATZAREN 29AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2025.05.29

Tolosako Udaletxean, 2025eko maiatzaren hogeita bederatzian, 18:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako zinegotziak:

Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte(EH BILDU)

Goiuri Eceiza Arandia(EH BILDU)

Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)

Miren Yosune Sanz Vidal(EH BILDU)

Aitor Aguirresarobe Murgui(EH BILDU)

Cristina Pelaez Errazquin(EH BILDU)

Aitzol Luis Garcia Azurmendi (EH BILDU)

Miren Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)

Miren Biotxa Aguirre Ugalde(EAJ-PNV)

Maria Leire Zubeldia Rezola(EAJ-PNV)

Javier Francisco Zabala Sastre(EAJ-PNV)

Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)

Jose Francisco Amantegui Zubiria (EAJ-PNV)

Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

Jose Maria Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

Udal idazkaria:

Sara Berasategui Fuertes

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Haurren hiria. Mintza Txokoa. Tolosako Udalbatzari azaltzea landutako proposamenak, eta Tolosako herriari ezagutaraztea ikasturtean landutakoa.
2. Akta hau onartzea:
2025eko apirilaren 30eko ohiko osoko bilkurakoa. (2025IPLE0004)
3. Onartzea Erregistro eta Herritarren Arretarako Bulegoko administrari-lanpostuaren balorazio-berrikuspena. (2025PLBB0001)
4. Onartzea ondare-erantzukizuneko administrari-lanpostuaren balorazio-berrikuspena. (2025PLBB0002)
5. Onartzea Komunitatea eta Gobernantzako arduradun-lanpostuaren balorazio-berrikuspena. (2025PLBB0003)
6. Onartzea kiroldegiko begirale-lanpostuaren balorazio-berrikuspena. (2025PLBB0004)
7. Onartzea kirol-instalazioetako harreragile-lanpostuaren balorazio-berrikuspena. (2025PLBB0005)
8. Hasierako onarpena ematea Aitzol Udal Euskaltegiaren erregelamenduari, eranskinean azaltzen den eran. (2025BHER0005)
9. Onartzea Emeterio Arrese Zentro Soziokulturaleko tabernaren prezioak eguneratzeari buruzko proposamena. (2025KPRE0002)
10. Onartzea itxitako ekitaldiko fakturak. (2025KBES0004)
11. Onartzea Tolosako Udaleko 2023-2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa. (2025DLPE0003)
12. Hasierako onarpena ematea 2025eko dirulaguntzen eranskina aldatzeko 2-2025 proposamenari. (2025AUDL0002)
13. Hasierako onarpena ematea 3/2025 kreditu-aldaketarako espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean. (2025AUKP0001)
14. 4/2025 kreditu-aldaketaren berri ematea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa. (2025AUKA0003)

15. 2024ko aurrekontuen likidazioen berri ematea. (2025AULI0001- 2025AULI0002-2025AULI0003)
16. EAJ/PNV Udal taldeak aurkeztutako mozioa: Tolosan merkataritza-lokal hutsak etxebizitza bihurtzeko aukerak aztertzea eta sustatzea. (2025IPLE0005)
17. Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartek aurkeztutako mozioa: Euskararen aurkako sententzietatik babestu eta hizkuntza-politikarako arkitekturari buruzkoa. (2025IPLE0005)
18. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. HAURREN HIRIA. MINTZA TXOKOA. TOLOSAKO UDALBATZARI AZALTZEA LANDUTAKO PROPOSAMENAK, ETA TOLOSAKO HERRIARI EZAGUTARAZTEA IKASTURTEAN LANDUTAKOA.

Alkateak hurrei ongi etorria eman ondoren, ikasturtean egindako lana eskertu die eta beren parte-hartzearen garrantzia azpimarratu. Tolosako Haurren Hiria programaren partaide diren, Herrikide, Laskorain eta Felix Samaniego ikastetxeetako ordezkariak ikasturtean zehar egindako lanaren ondorioak azaldu dituzte eta jarraian, lanaren laburpena aurkeztu dute.

Jarraian, "Tolosako Haurren Hiria" programaren partaideek lanaren ondorioak, azaldu dituzte:

Gaia: Tolosan Elkar Zainduz.

I ATALA: ikasturtean zehar egindako lanaren laburpena.

1. Kaixo! Arratsalde on guztioi! Tolosako Haurren Kontseiluko ordezkariak gara. Gaurkoan 2024-2025 ikasturtean egin dugun lana azalduko dizuegu.
2. Tolosako Udalaren Gazteria Sailak Haurren Hiria programa bideratzen du. Helburu nagusia herriko haurrei hitza ematea da.
3. Ba al dakizue zein den Francesco Tonucci? Pedagogo italiarra "Haurren Hiria" proiektuaren sortzailea da.
4. Bere iritziz, gure herriak ez dira diseinatu haurren beharrak asetzeko. Proiektu honen bitartez, hitza haurrei ematen zaie haien ikuspuntua kontuan hartu ahal izateko.
5. 2024-2025 ikasturtean 11. urteurrena ospatzen ari gara! Orain arte gai hauek aztertu dira Tolosako Haurren Hiria programaren baitan.
6. 2014-2015: Kaleak jolasleku gisa.
2015-2016: Aisialdirako ekintzak.
7. 2016-2017: Herriko baliabideak.
2017-2018: Belaunaldien arteko harremana.
8. 2018-2019: Mugikortasuna.
2019-2020: Tolosa, denon herria.
9. 2020-2021: Haurren sentimenduak mintzagai.
2021-2022: Herriko azpi-egiturak haurrentzat.
10. 2022-2023: Osasun mentala eta emozionala.
2023-2024: Haurren aisialdia.
11. Gu Haurren Kontseiluaren kideak gara. Herriko 8 eta 12 urte bitarteko 42 haur ordezkari izendatu dira.
12. Horretarako, programa honetan parte hartu nahi zuten haurren artean zozketa antolatu da.
13. Haurren adina, generoa, ikastetxea, bizitokia eta jatorriaren artean oreka bilatuz, Tolosako errealitatea islatzen duen taldea sortu da.
14. Genero bakoitzeko ERDIA, ikastetxe bakoitzeko HERENA, eta adin bakoitzeko LAURDENA.

15. Jatorriaren arabera portzentai ezberdinak egon dira, Tolosako proportzio berdinak mantenduz.
16. Ikastetxe bakoitzeko 14 ordezkari izendatu dira, Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6 mailetakoak. Ordezkariek gure gelakideei programaren nondik norakoak azaldu dizkiegu.
17. Horretarako, saio bakoitza egin ondoren laburpen bideoa sortu da azalpenak modu errazagoan eman ahal izateko.
18. Irakasle koordinatzailearen laguntzarekin programa ikasle guztien artean zabaltzen da, eskerrik asko Garbiñe, Naiara eta Ana, zuen lanarengatik!
19. 2024-2025 ikasturtean Tolosako zaintzak hobetzeko proposamenak landu ditugu.
20. Adituen azalpenak jaso ondoren, gure herriko egoera nola hobetu daitekeen pentsatu dugu.
21. Horretarako, ariketa eta jolas ezberdinak egin ditugu, beti ere, herriko zaintzak hobetzeko asmoarekin.
22. Ikasturte honetan lau aldiz elkartu gara, eta ikastetxe ezberdinetako haurrak elkarrekin aritu gara Tolosako kultur etxean.
23. Saio hauen bitartez herriaren egoera ezagutu dugu eta gure iritzia emateko aukera izan dugu.
24. Haur ordezkarien familiekin ere bilerak egon dira: azaroaren 29an eta maiatzaren 21ean. Jarraian, proposamenak aurkeztuko ditugu, jasotako bozka kopuruaren arabera.

II ATALA: Herriaren egoera hobetzeko proposamenen aurkezpena.

25. 18 BOZKA: Eskola goizez bakarrik izatea gustatuko litzaike, eta unibertsitatean matrikulak merkeagoak izatea. Gainera, eskoletan laguntzeko boluntarioak egotea ere lagungarria litzateke.
26. 16 BOZKA: Udako jarduera gehiago nahi ditugu: udalekuak, tailerrak, eta mugikorren erabilera arduratsua bultzatzeko ikastaroak, osasuntsuago bizitzeko. Urtean zehar ere umeentzako eta gazteentzako ekintza gehiago egotea: igande arratsaldetan disko-festak egitea, musika talde txikientzako espazioak sortzea, tailerrak, irteerak, etabar.

27. 16 BOZKA: Zuhaitz gehiago landatu nahi ditugu, berdegune gehiago sortu eta daudenak ondo zaindu. Gainera, ura ez xahutzea eta kutsadura murriztea oso garrantzitsua da guretzat.
28. 12 BOZKA: Adinekoei eta pertsona behartsuei laguntzeko boluntario gehiago nahi ditugu. Ospitale on bat behar dugu, eta etxean laguntzeko zerbitzuak. Egoitzak, larrialdi botoiak eta dirulaguntzak ere garrantzitsuak dira.
29. 11 BOZKA: Herria seguruagoa izateko, kaleetan segurtasun-kamerak eta polizia gehiago jartzea. Zigarroak debekatzea eta zezenekin lotutako ekintzak ez egitea ere proposatu dugu.
30. 10 BOZKA: Behar bereziak dituzten pertsonentzat egokitzapen gehiago nahi ditugu: barrera arkitektonikoak murriztea, garraio publikoan egokitzapenak egitea eta jolas-parkeetan aukera inklusiboak egotea.
31. 10 BOZKA: Herrian ibiltzea errazteko, espaloien eta errepideen konponketa behar da (Trianguluan, Usabalen, lurren eta Larramendin), komun publiko gehiago, bidegorri gehiago, semaforo soinudunak, aldapa dagoen tokitan igogailu gehiago eta argiztapen hobea.
32. 9 BOZKA: Hezkuntzan, neskentzako futbol entrenamenduak, ikastaro feministak eta euskararen erabilera indartzea nahi dugu. Nagusiei informatika irakastea ere ideia ona da.
33. 6 BOZKA: Herrian jolas-parke eta kirol-instalazio gehiago nahi ditugu baita daudenak hobetzea ere, iturriak, txakurrarekin ibiltzeko aparteko parkeak, euria egiten duenerako estalitako guneak. Guztiontzako toki seguru eta erosoak behar ditugu.
34. 6 BOZKA: Zaborrontzi gehiago eta birziklapenerako edukiontzi bereziak behar ditugu (erabilitako olioak, bigarren eskuko arropa...). Kaleak eta ibaiak garbi mantendu behar dira, eta zaborra lurrera botatzen dutenentzat zigorrak egon daitezela.
35. 4 BOZKA: Belaunaldien arteko harremanak indartu nahi ditugu: nagusiekin jolasak, bazkariak edo istorioak partekatu, eta elkarri lagundu eguneroko gauzetan. Adibidez, egoitzetara bisitak antolatu daitezke eta herrian adineko pertsonentzat atsedenleku gehiago egotea.
36. 3 BOZKA: Herrian dagoen trafikoa gutxitu eta autobus gehiago jartzea nahi dugu, doakoak eta ordutegi hobeekin, eskolara joateko errazago. Taxi merkeagoak eta irisgarriak ere proposatu ditugu, eta auzoetan aparkatzeko toki gehiago.

37. Ikasturtean zehar egin dugun lanaren jarraipena egiteko aukera eskaintzen da Tolosako Haurren Hiria proiektuaren webgunearen bitartez.

38. Eskerrik asko guztioi gure hitza kontuan izateagatik! Hurren arte!!!

Udaleko hiru talde politikoen ordezkariak adierazi dute haurrak egindako ekarpenak oso interesgarriak eta aberasgarriak direla eta Tolosako Udalak kontuan hartuko dituela aurrera eraman beharreko plangintzak zehazteko momentuan.

Haur ordezkariak Tolosako Haurren Hiria programaren diploma banatu die alkateak, eta ondoren talde argazkia atera da.

Haurrek egindako lanarengatik eskerrak emanez, Mintza Txokoari amaiara eman zaio.

2. AKTA HAU ONARTZEA:

2025EKO APIRILAREN 30EKO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

3. ONARTZEA ERREGISTRO ETA HERRITARREN ARRETARAKO BULEGOKO ADMINISTRARI-LANPOSTUAREN BALORAZIO-BERRIKUSPENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko maiatzaren 21eko irizpena.

IKUSIRIK

Lehena.- Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaeraz onartu zuen.

Bigarrena.- Udalbatzak 2024ko abenduaren 23an lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia hasierako izaeraz onartu zuen. Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman ondoren, ez ziren erreklamazioak aurkeztu; hortaz, 2025eko martxoaren 27an behin-betiko izaeraz argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari ofizialean.

Hirugarrena.- Araudian zortzigarren puntuan adierazten den moduan, urtero udal gobernuak plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz berrikusiko diren lanpostuak.

Laugarrena.- Tokiko Gobernu batzarrak 2025eko martxoaren 25ean egindako bileran, 2025 urterako plangintza onartu zuen eta ofiziozko berrikuspenaren barnean, ez-ohiko prozeduran, besteen artean, "Erregistro eta Herritarren Arretarako bulego administrari" lanpostua (3.202.1 kodea duena) erabaki zen.

Bosgarrena.- Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak, 2025eko apirilaren 15eko probidentziaren bidez, lanpostu honen balorazioaren berrikuspen prozedurari hasera ematea erabaki zuen.

Seigarrena.- Giza Baliabideetako arduradunak 2025eko apirilaren 16an egin zuen proposamena eta saileko arduradun eta ordezkari politikoari jakinarazi zen, iradokizunak aurkezteko aukera emanaz.

Zazpigarrena.- 2025eko apirilaren 29an eta maiatzaren 6an balorazio berrikuspen batzordean gaia tratatu eta negoziatu da, gaia gehiengoz onartu delarik.

Zortzigarrena.- Kontuhartzaileak dagokion fiskalizazio txostena egin du.

GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Lehena.- 2022ko abenduaren 15ean Udalbatzak behin-betiko izaeraz lanpostuen balorazioa onartu zuen; bertan, besteen artean, Udateko koordinatzaile lanpostua sortzeko proposamena aurreikusten zen, beti ere legeak ahalbideratzen zuen heinean eta lanpostu berri hau hornitu ahal izateko dagokion doikuntza onartzen zen heinean.

Dena den, Udateko koordinatzaile plaza ez zen sortu baina Antolakuntzako eta Giza Baliabideetako zinegotzien ustez, azpi sail honetan koordinazio figura bat egotea guztiz beharrezkoa da, horregatik Udateko langileen artean koordinazio lan horiek egiteko udal langile bat izendatzea beharrezkoa ikusten da.

Bigarrena.- Udalak, udate koordinatzaile lanpostuaren katalogoa eta balorazioa onartu ez bazituen ere, funtzioen katalogo proposamen bat prest utzi zuen, etorkizuneko udal gobernuak lanpostu hau sortzeko borondatea adierazten bazuten, funtzioen proposamen bat izateko.

Zentzu honetan honako funtzioak utzi zituen aurreikusiak onartu gabeko Udateko koordinatzaile lanpostuaren katalogoan:

1. Zerbitzua antolatzea, gainbegiratzea eta koordinatzea, zerbitzuaren beharren arabera.
2. Prozedurei buruzko informazio-txantiloak sortzea/eguneratzea, eta horietan arauak ezartzen dituzten berritasunak txertatzea.
3. Udaleko izapidetze-prozedurak hobetzeko proposamenak egitea.
4. Arloarekin/sailarekin lotutako sarrera-dokumentazioa berrikustea eta aztertzea, eta erabili ahal izateko antolatzea.
5. Jarraibide-aldaketen berri ematea eta zalantzak argitzea saileko arduradunei.
6. Idazkariarekin, arloetako arduradunekin eta zinegotziekin bilerak egitea irizpideak bateratzeko eta udalaren barneko koordinazioa hobetzeko (astean behin).
7. Udateko bulegoaren datuak ematea hilean behin, udalaren kudeaketa-txostenean gehitzeko.
8. Biztanleen Udal Erroldako ofiziozko bajak eta iraungitzeak sortutakoak izapidetzea.
9. Espainiako Estadistika Institutuak (INE) igorritako gorabeherak aztertzea eta konpontzea, eta iraungitzeak eragindako baja-espedienteak izapidetzea.
10. Erroldatze bereziko espedienteak izapidetzeak berekin dakartzan administrazio-lanak egitea.
11. INEri hilaren amaierako aldaketen zerrenda helaraztea.

Hirugarrena.- Hori horrela, funtzio horiek bi langileen artean egiten dituzte, hain zuzen ere erregistro eta herritarren arretarako bulego administrariaren eta ondare erantzukizuneko administrariaren artean; hain zuzen ere langile bakoitzak honako funtzioak burutzen ditu:

a) Erregistro eta herritarren arretarako bulego administrariak:

1. Zerbitzua antolatzea, gainbegiratzea eta koordinatzea, zerbitzuaren beharren arabera.
2. Arloarekin/sailarekin lotutako sarrera-dokumentazioa berrikustea eta aztertzea, eta erabili ahal izateko antolatzea.
3. Jarraibide-aldaketen berri ematea eta zalantzak argitzea saileko arduradunei.
4. Idazkariarekin, arloetako arduradunekin eta zinegotziekin bilerak egitea irizpideak bateratzeko eta udalaren barneko koordinazioa hobetzeko (astean behin).
5. Udateko bulegoaren datuak ematea hilean behin, udalaren kudeaketa-txostenean gehitzeko.
6. INEri hilaren amaierako aldaketen zerrenda helaraztea.
7. Urteroko biztanlegoaren zifra ofiziala kudeatzea, Udalbatzak onar dezan.

b) Ondare erantzukizuneko administrariak:

1. Biztanleen Udal Erroldako ofiziozko bajak eta iraungitzeak sortutakoak izapidetzea.
2. Espainiako Estadistika Institutuak (INE) igorritako gorabeherak aztertzea eta konpontzea, eta iraungitzeak eragindako baja-espedienteak izapidetzea.
3. Erroldatze bereziko espedienteak izapidetzeak berekin dakartzan administrazio-lanak egitea.

Laugarrena.- Behin lanpostu honen funtzio berriak aztertu ondoren, haxe da egiten den balorazio proposamen berria:

<u>Faktorea</u>	<u>Eguno balorazioa</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
Espezializazioa	50	75
Esperientzia	150	150
Agintea	0	50
Oihartzuna	150	150
A. intelektualak	50	50
A. Fisikoa	0	0
Nekagarritasuna	50	25
Arriskugarritasuna	0	0
Lanaldia	25	25
Dedikazioa	0	0

Bestalde, berrikuspena egin ahal izateko, ofiziozko ez-ohiko prozedurari dagokionean, haxe da arautegiak xedatzen duen

BERRIKUSPEN PROZEDURA

Lanpostuen balorazioaren berrikuspen prozeduraren barnean, ofiziozko ez ohiko berrikuspenak honako prozedura finkatzen du bere 10.2 puntuan:

“

- Giza Baliabideak Azpisailak, zinegotzi delegatuak (edo alkateak, hala badagokio) aginduta, lanpostuaren funtzio/zereginen eta balorazioaren proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontatzen hasita.*
- Proposamena jakinaraziko zaie dagokion saileko arduradunei (politikoari zein teknikoari), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorazioaren proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*
- Proposamena langileen ordezkaritzari jakinarazi behar zaio, eta ondoren negoziatu behar da dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hori beste zazpi lanegunetz luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatuz gero.*
- Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*

- f) *Balorzio Batzorde Iraunkorrek egindako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- g) *Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkariak jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.*
- h) *Lanpostuari dagokion balorzio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irabazten denetik, eta salbuespenezko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik.”*

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua b) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen berariazko osagarrien zehaztapenak eta aplikazioa pertsonalaren ordezkariarekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, balorzio berrikuspen hau ordezkari sindikalekin negoziatu da 2025eko apirilaren 29an eta maiatzaren 6an.

ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2025eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- "Erregistro eta Herritarren Arretarako bulegoko administrari" lanpostuari (3.202.1 kodea duena) behin-behineko izaeraz honako funtzio berriak esleitzea, Udateko koordinatzaile lanpostua sortu bitartean edo funtzioen aldaketa bat egiten den bitartean:

1. Zerbitzua antolatzea, gainbegiratzea eta koordinatzea, zerbitzuaren beharren arabera.
2. Arloarekin/sailarekin lotutako sarrera-dokumentazioa berrikustea eta aztertzea, eta erabili ahal izateko antolatzea.
3. Jarraibide-aldaketen berri ematea eta zalantzak argitzea saileko arduradunei.
4. Idazkariarekin, arloetako arduradunekin eta zinegotziekin bilerak egitea irizpideak bateratzeko eta udalaren barneko koordinazioa hobetzeko (astean behin).
5. Udateko bulegoaren datuak ematea hilean behin, udalaren kudeaketa-txostenean gehitzeko.
6. INEri hilaren amaierako aldaketen zerrenda helaraztea.
7. Urteroko biztanlegoaren zifra ofiziala kudeatzea, Udalbatzak onar dezan.

Bigarrena.- Esleitutako funtzio berri hauen ondorioz, lanpostu honen balorazio proposamen berria egitea:

<u>Faktorea</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
Espezializazioa	75
Esperientzia	150
Agintea	50
Oihartzuna	150
A. intelektual	50
A. Fisikoa	0
Nekagarritasuna	25
Arriskugarritasuna	0
Lanaldia	25
Dedikazioa	0

Hirugarrena.- Balorazio berrikuspen honen ondorioz, honako gastua onartzea:

Ordainsariak	Gizarte segurantz	GUZTIRA
1.177	307	1.484

Laugarrena.- Proposamen honi 2025eko urtarrilaren 1eko atzeraeraginkortasun ondorioak ematea.

Bosgarrena.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Erregistro eta Herritarren Arretarako bulegoko administrari-lanpostuaren balorazio-berrikuspena.

4. ONARTZEA ONDARE-ERANTZUKIZUNEN ADMINISTRAZIO-LANPOSTUAREN BALORAZIO-BERRIKUSPENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko maiatzaren 21eko irizpena.

IKUSIRIK

Lehenena.- Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaeraz onartu zuen.

Bigarrena.- Udalbatzak 2024ko abenduaren 23an lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia hasierako izaeraz onartu zuen. Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman ondoren, ez ziren erreklamazioak aurkeztu; hortaz, 2025eko martxoaren 27an behin-betiko izaeraz argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari ofizialean.

Hirugarrena.- Araudian zortzigarren puntuan adierazten den moduan, urtero udal gobernuak plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz berrikusiko diren lanpostuak.

Laugarrena.- Tokiko Gobernu batzarrak 2025eko martxoaren 25ean egindako bileran, 2025 urterako plangintza onartu zuen eta ofiziozko berrikuspenaren barnean, ez-ohiko prozeduran, besteen artean, "Ondare erantzukizuneko administrari" lanpostua erabaki zen.

Bosgarrena.- Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak, 2025eko apirilaren 15eko probidentziaren bidez, lanpostu honen balorazioaren berrikuspen prozedurari hasera ematea erabaki zuen.

Seigarrena.- Giza Baliabideetako arduradunak 2025eko apirilaren 16an egin zuen proposamena eta saileko arduradun eta ordezkari politikoari jakinarazi zen, iradokizunak aurkezteko aukera emanaz.

Zazpigarrena.- 2025eko apirilaren 29an eta maiatzaren 6an balorazio berrikuspen batzordean gaia tratatu eta negoziatu da, gaia gehiengoz onartu delarik.

Zortzigarrena.- Kontuhartzaileak dagokion fiskalizazio txostena egin du.

GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Lehena.- 2022ko abenduaren 15ean Udalbatzak behin-betiko izaeraz lanpostuen balorazioa onartu zuen; bertan, besteen artean, Udateko koordinatzaile lanpostua sortzeko proposamena aurreikusten zen, beti ere legeak ahalbideratzen zuen heinean eta lanpostu berri hau hornitu ahal izateko dagokion doikuntza onartzen zen heinean.

Dena den, Udateko koordinatzaile plaza ez zen sortu baina Antolakuntzako eta Giza Baliabideetako zinegotzien ustez, azpi sail honetan koordinazio figura bat egotea guztiz beharrezkoa da, horregatik Udateko langileen artean koordinazio lan horiek egiteko udal langile bat izendatzea beharrezkoa ikusten da.

Bigarrena.- Udalak, udate koordinatzaile lanpostuaren katalogoa eta balorazioa onartu ez bazituen ere, funtzioen katalogo proposamen bat prest utzi zuen, etorkizuneko udal gobernuak lanpostu hau sortzeko borondatea adierazten bazuten, funtzioen proposamen bat izateko.

Zentzu honetan honako funtzioak utzi zituen aurreikusiak onartu gabeko Udateko koordinatzaile lanpostuaren katalogoan:

1. Zerbitzua antolatzea, gainbegiratzea eta koordinatzea, zerbitzuaren beharren arabera.
2. Prozedurei buruzko informazio-txantiloak sortzea/eguneratzea, eta horietan arauak ezartzen dituzten berritasunak txertatzea.
3. Udaleko izapidetze-prozedurak hobetzeko proposamenak egitea.
4. Arloarekin/sailarekin lotutako sarrera-dokumentazioa berrikustea eta aztertzea, eta erabili ahal izateko antolatzea.
5. Jarraibide-aldaketen berri ematea eta zalantzak argitzea saileko arduradunei.
6. Idazkariarekin, arloetako arduradunekin eta zinegotziekin bilerak egitea irizpideak bateratzeko eta udalaren barneko koordinazioa hobetzeko (astean behin).
7. Udateko bulegoaren datuak ematea hilean behin, udalaren kudeaketa-txostenean gehitzeko.
8. Biztanleen Udal Erroldako ofiziozko bajak eta iraungitzeak sortutakoak izapidetzea.
9. Espainiako Estatistika Institutuak (INE) igorritako gorabeherak aztertzea eta konpontzea, eta iraungitzeak eragindako baja-espedienteak izapidetzea.
10. Erroldatze bereziko espedienteak izapidetzeak berekin dakartzan administrazio-lanak egitea.
11. INEri hilaren amaierako aldaketen zerrenda helaraztea.

Hirugarrena. - Hori horrela, funtzio horiek bi langileen artean egiten dituzte, hain zuzen ere erregistro eta herritarren arretarako bulego administrariaren eta ondare erantzukizuneko administrariaren artean; hain zuzen ere langile bakoitzak honako funtzioak burutzen ditu:

a) Erregistro eta herritarren arretarako bulego administrariak:

1. Zerbitzua antolatzea, gainbegiratzea eta koordinatzea, zerbitzuaren beharren arabera.
2. Arloarekin/sailarekin lotutako sarrera-dokumentazioa berrikustea eta aztertzea, eta erabili ahal izateko antolatzea.
3. Jarraibide-aldaketen berri ematea eta zalantzak argitzea saileko arduradunei.
4. Idazkariarekin, arloetako arduradunekin eta zinegotziekin bilerak egitea irizpideak bateratzeko eta udalaren barneko koordinazioa hobetzeko (astean behin).
5. Udateko bulegoaren datuak ematea hilean behin, udalaren kudeaketa-txostenean gehitzeko.
6. INEri hilaren amaierako aldaketen zerrenda helaraztea.
7. Urteroko biztanlegoaren zifra ofiziala kudeatzea, Udaltzak onar dezan.

b) Ondare erantzukizuneko administrariak:

1. Biztanleen Udal Erroldako ofiziozko bajak eta iraungitzeak sortutakoak izapidetzea.
2. Espainiako Estatistika Institutuak (INE) igorritako gorabeherak aztertzea eta konpontzea, eta iraungitzeak eragindako baja-espedienteak izapidetzea.
3. Erroldatze bereziko espedienteak izapidetzeak berekin dakartzan administrazio-lanak egitea.

Laugarrena.- Behin lanpostu honen funtzio berriak aztertu ondoren, haxe da egiten den balorazio proposamen berria:

<u>Faktorea</u>	<u>Egungo balorazioa</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
Espezializazioa	50	50
Esperientzia	100	100
Agintea	0	0
Oihartzuna	150	150
A. intelektualak	50	50
A. Fisikoa	0	0
Nekagarritasuna	0	25
Arriskugarritasuna	0	0
Lanaldia	0	0
Dedikazioa	0	0

Bestalde, berrikuspena egin ahal izateko, ofiziozko ez-ohiko prozedurari dagokionean, haxe da arautegiak xedatzen duen

BERRIKUSPEN PROZEDURA

Lanpostuen balorazioaren berrikuspen prozeduraren barnean, ofiziozko ez ohiko berrikuspenak honako prozedura finkatzen du bere 10.2 puntuan:

“

- Giza Baliabideak Azpisailak, zinegotzi delegatuak (edo alkateak, hala badagokio) aginduta, lanpostuaren funtzio/zereginen eta balorazioaren proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontatzen hasita.*
- Proposamena jakinaraziko zaie dagokion saileko arduradunei (politikoari zein teknikoari), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorazioaren proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*

- d) *Proposamena langileen ordezkaritzari jakinarazi behar zaio, eta ondoren negoziatu behar da dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hori beste zazpi lanegunez luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatuz gero.*
- e) *Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*
- f) *Balorazio Batzorde Iraunkorrak egindako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- g) *Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkaritzari jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.*
- h) *Lanpostuari dagokion balorazio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irmoa denetik, eta salbuespenezko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik.”*

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua b) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen berariazko osagarrien zehaztapenak eta aplikazioa pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, balorazio berrikuspen hau ordezkari sindikalekin negoziatu da 2025eko apirilaren 29an eta maiatzaren 6an.

ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehenena.- "Ondare erantzukizuneko administrari" lanpostuari behin-behineko izaeraz honako funtzio berriak esleitzea, Udateko koordinatzaile lanpostua sortu bitartean edo funtzioen aldaketa bat egiten den bitartean.

1. Biztanleen Udal Erroldako ofiziozko bajak eta iraungitzeak sortutakoak izapidetzea.
2. Espainiako Estatistika Institutuak (INE) igorritako gorabeherak aztertzea eta konpontzea, eta iraungitzeak eragindako baja-espedienteak izapidetzea.
3. Erroldatze bereziko espedienteak izapidetzeak berekin dakartzan administrazio-lanak egitea.

Bigarrenena.- Esleitutako funtzio berri hauen ondorioz, lanpostu honen balorazio proposamen berria egitea:

<u>Faktorea</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
Espezializazioa	50
Esperientzia	100
Agintea	0
Oihartzuna	150
A. intelektualak	50
A. Fisikoa	0
Nekagarritasuna	25
Arriskugarritasuna	0
Lanaldia	0
Dedikazioa	0

Hirugarrenena.- Balorazio berrikuspen honen ondorioz, honako gastua onartzea:

Ordainsariak	Gizarte segurantz	GUZTIRA
588	154	742

Laugarrena.- Proposamen honi 2025eko urtarrilaren 1eko atzeraeraginkortasun ondorioak ematea.

Bosgarrena.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du ondare-erantzukizuneko administrari-lanpostuaren balorazio-berrikuspena.

5. ONARTZEA KOMUNITATEA ETA GOBERNANTZAKO ARDURADUN-LANPOSTUAREN BALORAZIO-BERRIKUSPENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko maiatzaren 21eko irizpena.

IKUSIRIK

Lehenen.- Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaeraz onartu zuen.

Bigarrena.- Udalbatzak 2024ko abenduaren 23an lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia hasierako izaeraz onartu zuen. Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman ondoren, ez ziren erreklamazioak aurkeztu; hortaz, 2025eko martxoaren 27an behin-betiko izaeraz argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari ofizialean.

Hirugarrena.- Araudian zortzigarren puntuan adierazten den moduan, urtero udal gobernuak plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz berrikusiko diren lanpostuak.

Laugarrena.- Tokiko Gobernu batzarrak 2025eko martxoaren 25ean egindako bileran, 2025 urterako plangintza onartu zuen eta ofiziozko berrikuspenaren barnean, ez-ohiko prozeduran, besteen artean, "Komunitate eta gobernantzako arduradun" lanpostua erabaki zen.

Bosgarrena.- Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak, 2025eko apirilaren 15eko probidentziaren bidez, lanpostu honen balorazioaren berrikuspen prozedurari hasera ematea erabaki zuen.

Seigarrena.- Giza Baliabideetako arduradunak 2025eko apirilaren 16an egin zuen proposamena eta saileko arduradun eta ordezkari politikoari jakinarazi zen, iradokizunak aurkezteko aukera emanaz.

Zazpigarrena.- 2025eko apirilaren 29an eta maiatzaren 6an balorazio berrikuspen batzordean gaia tratatu eta negoziatu da, gaia gehiengoz onartu delarik.

Zortzigarrena.- Kontuhartzaileak dagokion fiskalizazio txostena egin du.

GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Lehena.- Lanpostu honek honako funtzioak ditu:

Erantzukizun orokorrak:

- Udal-proiektuen kudeaketaz arduratzea, hala nola gobernantzaz, herritarrekiko harremanez eta Tolosatzen proiektuez.

ERAKUNDE-KOMUNIKAZIOA ETA GOBERNANTZA:

1. Erakunde-komunikazioa egin eta kudeatzea, eta bere ardurapeko baliabideen funtzioak ikuskatzea.
2. Deitzen diren parte hartzeko bilkurak eta aldian behingo bilerak planifikatu, diseinatu, antolatu eta ikuskatzea.
3. Tolosatzen 2017-2027 udal-plan estrategikoa kudeatzea, koordinatzea eta haren betetze-mailaren jarraipena egitea.
4. Aurrekontu parte-hartzaileak bultzatu, planifikatu, kudeatu eta koordinatzeak.
5. Gainerako sailetan koordinatzea herritarren parte-hartzea eta lankidetzak lortzera bideratutako proiektu estrategikoetan.

6. Bere eremuko beste organismo eta erakunde batzuekin harremanak eta kontaktuak bultzatu, egin eta garatzea.

BESTELAKOAK:

7. Datu Pertsonalen Babeseko ordezkaria izatea.
8. Gardentasun-atarian informazioa gehitzea kudeatzea.
9. Foroetan Udalaren ordezkaria izatea antolatzen dituzten bileretan parte hartuz: aldundia, kanpoko proiektuak, etab.
10. Senidetzeak eta kanpo-harremanak kudeatzea.
11. Gobernuarekin batera jendaurrean parte hartzea udal-plan estrategikoak gizarteratzen.
12. Tolosatzen Eskola Irekiko idazkari-lanak egitea.

UNITATE/SAILAREN KUDEAKETA:

13. Arduradun politikoei eta beste sail batzuetako arduradunei aholkularitza teknikoa ematea bere eskumenaren arloko kontuetan.
14. Udalbatzarekin bilerak egitea lanen garapenaren berri eta ezarritako helburuen gaineko kontuak emateko.
15. Unitatearen urteko aurrekontu-proposamena egitea, eta haren jarraipena egitea, exekuzioa kudeatuta.
16. Bere eskumen-eremuan ordenantza- eta erregelamendu-proposamenak egitea.
17. Zerbitzu-prestazioa lizitatu beharraz proposamenak egitea eta horri buruzko irizpena ematea.
18. Bere funtzio-eremuko espedienteetan proposamen teknikoen orriak egitea, eta balioespen-txostenak egitea horietan oinarritutako lizitazioetan.
19. Kontratazio-organoak zehazten dituen kontratuez arduratzea, zerbitzua edo hornidura ematen dela bermatzea, eta horien ondoriozko fakturak egitea.
20. Teknikari gisa parte hartzea, horretarako eskatuz gero, eta bere eskumeneko arloei dagokienez, udal informazio-batzordeetan.
21. Sailen arduradunen aldian behingo bileretan parte hartzea.
22. Zeharkako koordinazio estrategikorako barneko foroetan parte hartzea.

ATXIKITAKO BALIABIDEEN AGINTEA:

23. Mendekoek gauzatu beharreko zereginak planifikatu, antolatu, ikuskatu eta koordinatzea, zerbitzuaren beharren arabera.
24. Mendeko langileei aholkularitza teknikoa ematea, eta haien zalantzak edo sortzen diren gorabeherak ebaztea.
25. Mendeko langileen kudeaketa egitea, eta horiek kontrolatu eta ikuskatzea, eta baimenen, prestakuntzaren, lizentzien eta oporren arloan oniritzia ematea.
26. Mendekoekin koordinazio, ikuskapen eta jarraipenerako bilerak egitea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

27. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
28. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
29. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
30. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
31. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
32. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldeztu aurretik horretarako jarraibideak jasota.

Bigarrenena.- Udal gobernua, Komunitate eta gobernantza saileko hainbat egitasmo martxan jarri nahi ditu, horien artean AuzoEkin proiektua non Tolosako auzo ezberdinetan parte hartze prozesuak martxan jarriko dira lau urteko plangintza batean.

2025 urteari dagokionez, hiru auzo/eremutan proiektua garatzen hasiko da eta honek hainbat arratsalde eremu bakoitzean bilera eta ekitaldi ezberdinak egitea ekarriko ditu. Hori horrela, kontuan hartuta arratsalde eta hainbat larunbatetan aipatu diren bilera zein aurkezpen horiek burutu beharko direla, lanpostu honi urtean 93 orduko lanaldi luzatzea proposatzen da, hau da, 1685 ordu egiteko proposamena luzatzen da.

Hirugarrena.- Bestetik, bere lanpostuaren funtzioei dagokionez, hauek bere horretan mantentzea proposatzen da.

Laugarrena.- Lanpostuaren balorazioari dagokionez, udalak 2025 urteko lanpostu zerrendan "komunikazio teknikari" lanpostua sortu du Komunitate eta gobernantza sailean, eta honek agente faktoreari dagokionez, aldaketa bat suposatzen du, hain zuzen ere menpeko langile bat izatetik bi langile izatera pasa da eta honek lanpostuaren balorazioan bere islada du "Agente" faktorean, D3 faktoretik D4 faktorerara igoko delarik balorazioa.

Hortaz, behin lanpostu honetan eman diren aldaketak aztertu ondoren, hau da egiten den balorazio proposamen berria:

<u>Faktorea</u>	<u>Egungo balorazioa</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
Espezializazioa	100	100
Esperientzia	100	100
Agintea	25	50
Oihartzuna	250	250

<u>Faktorea</u>	<u>Egungo balorazioa</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
A. intelektualak	100	100
A. Fisikoa	0	0
Nekagarritasuna	0	0
Arriskugarritasuna	0	0
Lanaldia	50	50
Dedikazioa	0	0

Honetaz gain, lanpostu honi urtean 1.685 ordutako lanaldia jartzea proposatzen da.

Bestalde, berrikuspena egin ahal izateko, ofiziozko ez-ohiko prozedurari dagokionean, hauxe da arautegiak xedatzen duen

BERRIKUSPEN PROZEDURA

Lanpostuen balorazioaren berrikuspen prozeduraren barnean, ofiziozko ez ohiko berrikuspenak honako prozedura finkatzen du bere 10.2 puntuan:

“

- Giza Baliabideak Azpisailak, zinegotzi delegatuak (edo alkateak, hala badagokio) aginduta, lanpostuaren funtzio/zereginen eta balorazioaren proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontatzen hasita.*
- Proposamena jakinaraziko zaie dagokion saileko arduradunei (politikoari zein teknikoari), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorazioaren proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*
- Proposamena langileen ordezkaritzari jakinarazi behar zaio, eta ondoren negoziatu behar da dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hori beste zazpi lanegunez luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatuz gero.*
- Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*

- f) *Balorazio Batzorde Iraunkorrek egindako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- g) *Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkariari jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.*
- h) *Lanpostuari dagokion balorazio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irmoa denetik, eta salbuespenezko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik.”*

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua b) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen berariazko osagarrien zehaztapenak eta aplikazioa pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, balorazio berrikuspen hau ordezkari sindikalekin negoziatu da 2025eko apirilaren 29an eta maiatzaren 6an.

ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2025eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal eta Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte.

- **Abstentzioak:** Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehen.- "Komunitate eta gobernantza arduradun" lanpostuaren funtzioak onartzea, hauexek hain zuzen ere:

Erantzukizun orokorrak:

- Udal-proiektuen kudeaketaz arduratzea, hala nola gobernantzaz, herritarrekiko harremanez eta Tolosatzen proiektuez.

ERAKUNDE-KOMUNIKAZIOA ETA GOBERNANTZA:

1. Erakunde-komunikazioa egin eta kudeatzea, eta bere ardurapeko baliabideen funtzioak ikuskatzea.
2. Deitzen diren parte hartzeko bilkurak eta aldian behingo bilerak planifikatu, diseinatu, antolatu eta ikuskatzea.
3. Tolosatzen 2017-2027 udal-plan estrategikoa kudeatzea, koordinatzea eta haren betetze-mailaren jarraipena egitea.
4. Aurrekontu parte-hartzaileak bultzatu, planifikatu, kudeatu eta koordinatzeak.
5. Gainerako sailetan koordinatzea herritarren parte-hartzea eta lankidetzak lortzera bideratutako proiektu estrategikoetan.
6. Bere eremuko beste organismo eta erakunde batzuekin harremanak eta kontaktuak bultzatu, egin eta garatzea.

BESTELAKOAK:

7. Datu Pertsonalen Babeseko ordezkaria izatea.
8. Gardentasun-atarian informazioa gehitzea kudeatzea.
9. Foroetan Udalaren ordezkaria izatea antolatzen dituzten bileretan parte hartuz: aldundia, kanpoko proiektuak, etab.
10. Senidetzeak eta kanpo-harremanak kudeatzea.
11. Gobernuarekin batera jendaurrean parte hartzea udal-plan estrategikoak gizarteratzen.
12. Tolosatzen Eskola Irekiko idazkari-lanak egitea.

UNITATE/SAILAREN KUDEAKETA:

13. Arduradun politikoei eta beste sail batzuetako arduradunei aholkularitza tekniko ematea bere eskumenaren arloko kontuetan.
14. Udalbatzarekin bilerak egitea lanen garapenaren berri eta ezarritako helburuen gaineko kontuak emateko.
15. Unitatearen urteko aurrekontu-proposamena egitea, eta haren jarraipena egitea, exekuzioa kudeatuta.
16. Bere eskumen-eremuan ordenantza- eta erregelamendu-proposamenak egitea.
17. Zerbitzu-prestazioa lizitatu beharraz proposamenak egitea eta horri buruzko irizpena ematea.
18. Bere funtzio-eremuko espedienteetan proposamen teknikoen orriak egitea, eta balioespen-txostenak egitea horietan oinarritutako lizitazioetan.
19. Kontratazio-organoak zehazten dituen kontratuez arduratzea, zerbitzua edo hornidura ematen dela bermatzea, eta horien ondoriozko fakturak egitea.
20. Teknikari gisa parte hartzea, horretarako eskatuz gero, eta bere eskumeneko arloei dagokienez, udal informazio-batzordeetan.
21. Sailen arduradunen aldian behingo bileretan parte hartzea.
22. Zeharkako koordinazio estrategikorako barneko foroetan parte hartzea.

ATXIKITAKO BALIABIDEEN AGINTEA:

23. Mendekoek gauzatu beharreko zereginak planifikatu, antolatu, ikuskatu eta koordinatzea, zerbitzuaren beharren arabera.
24. Mendeko langileei aholkularitza tekniko ematea, eta haien zalantzak edo sortzen diren gorabeherak ebaztea.
25. Mendeko langileen kudeaketa egitea, eta horiek kontrolatu eta ikuskatzea, eta baimenen, prestakuntzaren, lizentzien eta oporren arloan oniritzia ematea.
26. Mendekoekin koordinazio, ikuskapen eta jarraipenerako bilerak egitea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

27. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
28. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
29. Unitatera/arloratara atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
30. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
31. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
32. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

Bigarrena.- Lanpostu honen balorazio proposamen berria egitea:

<u>Faktorea</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
Espezializazioa	100
Esperientzia	100
Agintea	50
Oihartzuna	250
A. intelektualak	100
A. Fisikoa	0
Nekagarritasuna	0
Arriskugarritasuna	0
Lanaldia	50
Dedikazioa	0

Era berean, lanpostu honi urtean 1.685 ordutako lanaldia finkatzea. Dedikazio hau AUZOekin proiektuaren amaierarekin batera desagertuko da.

Hirugarrena.- Aldaketa hauek udaleko lanpostu zerrendan txertatzea.

Laugarrena.- Balorazio berrikuspen honen ondorioz, honako gastua onartzea:

Ordainsariak	Gizarte segurantzak	GUZTIRA
3.589	933	4.522

Bosgarrena.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi eta Miren Garbiñe Marzol Ormazabal.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Komunitate eta Gobernantzako arduradun-lanpostuaren balorazio-berrikuspena.

6. ONARTZEA KIROLDEGIKO BEGIRALE-LANPOSTUAREN BALORAZIO-BERRIKUSPENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko maiatzaren 21eko irizpena.

IKUSIRIK

Lehena.- Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaeraz onartu zuen.

Bigarrena.- Udalbatzak 2024ko abenduaren 23an lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia hasierako izaeraz onartu zuen. Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman ondoren, ez ziren erreklamazioak aurkeztu; hortaz, 2025eko martxoaren 27an behin-betiko izaeraz argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari ofizialean.

Hirugarrena.- Araudian zortzigarren puntuan adierazten den moduan, urtero udal gobernauk plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz berrikusiko diren lanpostuak.

Laugarrena.- Tokiko Gobernu batzarrak 2025eko martxoaren 25ean egindako bileran, 2025 urterako plangintza onartu zuen eta ofiziozko berrikuspenaren barnean, ez-ohiko prozeduran, besteen artean, "Kiroldetiko begirale" lanpostua erabaki zen.

Bosgarrena.- Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak, 2025eko apirilaren 15eko probidentziaren bidez, lanpostu honen balorazioaren berrikuspen prozedurari hasera ematea erabaki zuen.

Seigarrena.- Giza Baliabideetako arduradunak 2025eko apirilaren 16an egin zuen proposamena eta saileko arduradun eta ordezkari politikoari jakinarazi zen, iradokizunak aurkezteko aukera emanaz.

Zazpigarrena.- 2025eko apirilaren 29an eta 2025eko maiatzaren 7an Kiroletako arduradunak alegazio bat egin du Giza baliabideetako arduradunak egindako proposamenari. Era berean, Giza Baliabideetako arduradunak maiatzaren 8an proposamen berri bat egin du.

Zortzigarrena.- 2025eko apirilaren 29an, maiatzaren 6an eta maiatzaren 13an balorazio berrikuspen batzordean gaia tratatu eta negoziatu da, gaia gehiengoz onartu delarik.

Bederatzigarrena.- Kontuhartzaileak dagokion fiskalizazio txostena egin du.

GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Lehena.- Lanpostu honek honako funtzioak ditu;

Erantzukizun orokorrak:

- Kirol-jarduerak planifikatu eta ematea.
- Udal-igerilekuan zaintza- eta sorospen-lanak egitea bainu libreko unetan.

Lan esanguratsuenak:

KIROL-BEGIRALEA - SOROSLEA:

1. Eskola-kanpainetan igeriketa-eskolak eta ume eta helduentzako ikastaroak ematea.
2. Uretako sorosle-lanak egitea zainduz eta izan litezkeen gorabeherak eta istripuak aurreikusiz.
3. Udako ikastaroak ematea: futbola, padela, ludoteka, etab.
4. Kirol-jarduera batzuk programatu, gauzatu eta ebaluatzea.
5. Ikastaroak ebaluatzeko txostenak egitea: hasi aurretik eta amaitu ondoren.
6. Jarduerak emateko behar den material guztia prestatu, zaindu eta biltzea.
7. Igerilekuetako produktu kimikoen mailak neurtzea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

8. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
9. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
10. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
11. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
12. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
13. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldeztu aurretik horretarako jarraibideak jasota.

Bigarrena.- Kirol saileko arduradunak egindako alegazioei honakoa erantzun du Giza Baliabideetako arduradunak:

1) Batetik 8/2022 Legearen ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa, lanpostuaren kualifikazio talde berrian sartzea eskatu du. Ildo honetatik, lanpostu hau B taldean sailkatzeko eskaera egin du.

Kasu honetan, sailkapen taldeaz aldatu ahal izateko, gutxienez bi baldintza eman behar dira; lehena, funtzioak B edo A2 mailako izaera dutela egiaztatzea eta bigarrena, behin funtzioak B edo A2 sailkapen taldeari dagozkion funtzioak direla egiaztatzen bada, lanpostua modu horretan sailkatu daiteke, baina lanpostua hornitzen ari den langilea ezin du B edo A2 sailkapen taldeari dagozkion ordainsariak jaso, lan eskaintza publikoa onartu eta barne sustapen bat egiten ez den bitartean eta beti ere deialdi horretan eta lanpostu zerrendan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

2) Kiroletako arduradunak bere alegazioan ez ditu funtzio aldaketarik daudela argudiatzen, baizik eta planifikazio, programazio, exekuzio eta ebaluazio funtzioaren barnean faktore horiek ez daudela ondo isladatuak adierazten du.

3) Kirol saileko arduradunak lanpostuen balorazioan honako aldaketak proposatu ditu:

<u>Faktorea</u>	<u>Egungo balorazioa</u>	<u>GB Balorazio proposamena</u>	<u>Kiroletako proposamena</u>
Espezializazioa	50	50	75
Esperientzia	25	25	50
Agintea	0	0	25
Oihartzuna	50	50	150
A. intelektuala	0	0	25
A. Fisikoa	25	25	50
Nekagarritasuna	50	50	50
Arriskugarritasuna	0	0	0
Lanaldia	75	75	100
Dedikazioa	0	0	0

4) Behin alegazioa aztertu ondoren, Giza Baliabideetako arduradunak proposamen hau egin du:

- Espezializazio faktorean, B3 mailatik B4 mailara igotzea eskatzen du; kasu honetan ezin da alegazioa aintzat hartu, izan ere faktore honek espezializazio ikasketa maila (sarbiderako eskatzen den titulazioaren gehigarri gisa) eta dagokion konplexutasun funtzionala kontuan hartuta, ez dago elementu objektiborik igoera eman ahal izateko.

- Esperientzia faktorean, C1 mailatik C2 mailara igotzea eskatzen du; kasu honetan, kiroldegiko begirale lanpostuan beharrezkoa den ikasketara maila sei hilabetetan egoki baloratua dago.
- Aginte faktorean ere, balorazio aldaketa proposamena ez da onartzen, bere menpe langilerik ez duelako.
- Oihartzun faktorean, E1 mailatik E4 mailara igotzea eskatzen du; kasu honetan, lanpostuaren jardueren derrigortasun maila eta lanposturen konplexutasun eta operatiboa kontuan harturik, lanpostua nahiko baxu baloratua dago eta honen ondorioz, E1 mailatik E3 mailara igotzea proposatzen da.
- Ahalegin intelektualaren faktorean, F1 mailatik F2 mailara igotzea eskatzen du; kasu honetan proposamena onartzen da lanpostua dituen funtzioak kontuan hartuta.
- Ahalegin fisikoaren kasuan, G1 mailatik G2 mailara igoera eskatzen du. Kasu honetan, faktore honen balorazioa ahalegin horren maiztasunean oinarritzen da, eta kontuan hartuta dituen funtzioak ez dira kontsideratzen ahalegin fisikoa G2 mailakoak kontsideratu daitezkeenik, maiztasuna eta intentsitatea kontuan hartzen badira.
- Lanaldi faktorean, J3 mailatik J4 mailara igoera eskatzen du; kasu honetan, lanpostua duen ordutegiaren baitan egoki baloratua dago eta alegazioa ezin da aintzat hartu.

5) Azkenik, aldaketa hauek atzeraeraginez aplikatzea eskatu du:

Balorazio berrikuspen araudiak adierazten duen moduan, soilik salbuespenez aplikatu ahal izango da atzeraeraginkortasuna eta justifikaturiko eta arrazoituriko kasuetan. Kasu honetan, akordioa udalbatzak onartzen duenetik aurrera izango da aplikagarria.

Hirugarrena.- Balorazio berrikuspen batzordeak 2025eko maiatzaren 13an egindako bileran, honako balorazio berrikuspenera onartzea erabaki zuen:

<u>Faktorea</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
Espezializazioa	50
Esperientzia	25
Agintea	0
Oihartzuna	100
A. intelektualala	50
A Fisikoa	50
Nekagarritasuna	50
Arriskugarritasuna	0
Lanaldia	75
Dedikazioa	0

BERRIKUSPEN PROZEDURA

Lanpostuen balorazioaren berrikuspen prozeduraren barnean, ofiziozko ez ohiko berrikuspenak honako prozedura finkatzen du bere 10.2 puntuan:

“

- a) *Giza Baliabideak Azpisailak, zinegotzi delegatuak (edo alkateak, hala badagokio) aginduta, lanpostuaren funtzio/zereginen eta balorazioaren proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontatzen hasita.*
- b) *Proposamena jakinaraziko zaie dagokion saileko arduradunei (politikoari zein teknikoari), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- c) *Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorazioaren proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*
- d) *Proposamena langileen ordezkaritzari jakinarazi behar zaio, eta ondoren negoziatu behar da dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hori beste zazpi lanegunetz luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatuz gero.*
- e) *Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*
- f) *Balorazio Batzorde Iraunkorrek egindako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- g) *Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkaritzari jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.*
- h) *Lanpostuari dagokion balorazio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irmoa denetik, eta salbuespenezko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik.”*

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua b) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen berariazko osagarrien zehaztapenak eta aplikazioa pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, balorazio berrikuspen hau ordezkari sindikalekin negoziatu da 2025eko apirilaren 29an, maiatzaren 6an eta maiatzaren 13an.

ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- "Kiroldagiko begirale" lanpostuaren funtzioak onartzea, hauexek hain zuzen ere:

Erantzukizun orokorrak:

- Kirol-jarduerak planifikatu eta ematea.
- Udal-igerilekuan zaintza- eta sorospen-lanak egitea bainu libreko unetan.

Lan esanguratsuenak:

KIROL-BEGIRALEA - SOROSLEA:

1. Eskola-kanpainetan igeriketa-eskolak eta ume eta helduentzako ikastaroak ematea.
2. Uretako sorosle-lanak egitea zainduz eta izan litezkeen gorabeherak eta istripuak aurreikusiz.
3. Udako ikastaroak ematea: futbola, padela, ludoteka, etab.
4. Kirol-jarduera batzuk programatu, gauzatu eta ebaluatzea.
5. Ikastaroak ebaluatzeke txostenak egitea: hasi aurretik eta amaitu ondoren.
6. Jarduerak emateko behar den material guztia prestatu, zaindu eta biltzea.
7. Igerilekuetako produktu kimikoen mailak neurtzea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

8. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
9. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
10. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
11. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
12. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
13. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldeztu aurretik horretarako jarraibideak jasota.

Bigarrena.- Lanpostu honen balorazioa onartzea:

<u>Faktorea</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
Espezializazioa	50
Esperientzia	25
Agintea	0
Oihartzuna	100
A. intelektualak	50
A Fisikoa	50
Nekagarritasuna	50
Arriskugarritasuna	0
Lanaldia	75
Dedikazioa	0

Hirugarrena.- Lanpostuaren sailkapen taldeari dagokionean, B/C1 bezala sailkatzea eta lanpostuaren titularra jubilatzen denean, B sailkapen taldera birsailkatzea.

Laugarrena.- Aldaketa hauek udaleko lanpostu zerrendan txertatzea.

Bosgarrena.- Balorazio berrikuspen honen ondorioz, honako gastua onartzea:

Ordainsariak	Gizarte segurantz	GUZTIRA
1.381	456	1.837

Seigarrena.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du kiroldegiko begirale-lanpostuaren balorazio-berrikuspena.

7. ONARTZEA KIROL-INSTALAZIOETAKO HARRERAGILE-LANPOSTUAREN BALORAZIO-BERRIKUSPENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko maiatzaren 21eko irizpena.

IKUSIRIK

Lehena.- Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behinbetiko izaeraz onartu zuen.

Bigarrena.- Udalbatzak 2024ko abenduaren 23an lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia hasierako izaeraz onartu zuen. Hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman ondoren, ez ziren erreklamazioak aurkeztu; hortaz, 2025eko martxoaren 27an behin-betiko izaeraz argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari ofizialean.

Hirugarrena.- Araudian zortzigarren puntuan adierazten den moduan, urtero udal gobernuak plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz berrikusiko diren lanpostuak.

Laugarrena.- Tokiko Gobernu batzarrak 2025eko martxoaren 25ean egindako bileran, 2025 urterako plangintza onartu zuen eta ofiziozko berrikuspenaren barnean, ez-ohiko prozeduran, besteen artean, "Kirol instalazioetako harreragile" lanpostua erabaki zen.

Bosgarrena.- Giza Baliabideetako zinegotzi delegatuak, 2025eko apirilaren 15eko probidentziaren bidez, lanpostu honen balorazioaren berrikuspen prozedurari hasera ematea erabaki zuen.

Seigarrena.- Giza Baliabideetako arduradunak 2025eko apirilaren 16an egin zuen proposamena eta saileko arduradun eta ordezkari politikoari jakinarazi zen, iradokizunak aurkezteko aukera emanaz.

Zazpigarrena.- 2025eko apirilaren 29an eta 2025eko maiatzaren 7an Kiroletako arduradunak alegazio bat egin du Giza baliabideetako arduradunak egindako proposamenari. Era berean, Giza Baliabideetako arduradunak maiatzaren 8an proposamen berri horri erantzun dio.

Zortzigarrena.- 2025eko apirilaren 29an, maiatzaren 6an eta maiatzaren 13an balorazio berrikuspen batzordean gaia tratatu eta negoziatu da, gaia gehiengoz onartu delarik.

Bederatzigarrena.- Kontuhartzaileak dagokion fiskalizazio txostena egin du.

GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Lehena.- "Kirol instalazioetako harreragile" lanpostuaren funtzioak onartzea, proposamen honetan deskribatzen direnak.

Erantzukizun orokorrak:

- Atezaintza- eta administrazio-laguntzako lanak egitea.

Lan esanguratsuenak:

ATEZAINZA - ADMINISTRAZIO-LAGUNTZA:

1. Kirol-instalazioak ireki eta ixtea.
2. Kirol-instalazioetarako sarbidea tornuak kontrolatuz zaintzea.
3. Klubek instalazioak behar bezala erabiltzen dituztela zaintzea.
4. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.
5. Kirol-instalazioak erabiltzeko tasak kobratzea eta diru-sarreraren eta gastuen eguneko eta hileko kuxako kontaketa egitea.
6. Zor diren jardueren kuoten eta ordainagirien sortak egitea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

7. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
8. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
9. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
10. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
11. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
12. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

Bigarrena.- Lanpostu honen balorazio proposamena egitea:

<u>Faktorea</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
Espezializazioa	50
Esperientzia	50
Agintea	0
Oihartzuna	100
A. intelektual	0
A. Fisikoa	0
Nekagarritasuna	25
Arriskugarritasuna	0
Lanaldia	125
Dedikazioa	0

Hirugarrena.- Kirol saileko arduradunak egindako alegazioei honakoa erantzun du Giza Baliabideetako arduradunak:

1) Batetik, administrari lanak egiten dituztela adierazten du eta honen ondorioz, C1 taldean sailkatzeko eskaera egin du.

Kasu honetan, sailkapen taldeaz aldatu ahal izateko, gutxienez bi baldintza eman behar dira; lehena, funtzioak C1 mailako izaera dutela egiaztatzea eta bigarrena, behin funtzioak C1 sailkapen taldeari dagozkion funtzioak direla egiaztatzen bada, lanpostua C1 sailkapen taldera gisa sailkatu daiteke, baina lanpostua hornitzen ari den langilea ezin du C1 sailkapen taldeari dagozkion ordainsariak jaso, lan eskaintza publikoa onartu eta barne sustapen bat egiten ez den bitartean eta beti ere deialdi horretan eta lanpostu zerrendan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

2) Kirol saileko arduradunak lanpostuen balorazioan honako aldaketak proposatu ditu:

<u>Faktorea</u>	<u>Egungo balorazioa</u>	<u>GB Balorazio proposamena</u>	<u>Kiroletako proposamena</u>
Espezializazioa	25	25	50
Esperientzia	50	50	50
Agintea	0	0	25
Oihartzuna	75	75	100
A. intelektualak	0	0	0
A. Fisikoa	0	0	0
Nekagarritasuna	25	25	25
Arriskugarritasuna	0	0	0
Lanaldia	125	125	125
Dedikazioa	0	0	0

3) Behin alegazioa aztertu ondoren, espezializazio eta oihartzun faktorean puntuazio aldatzeko proposamena onartzen da, izan ere espezializazio faktorea oso baxu baloratua dago egiten dituzten funtzioak ikusi ondoren (bazkideen alta eta bajak ematea etab.,) eta horregatik, B2 mailatik B3 mailara igotzea proposatzen da. Bestetik, oihartzun faktorean ere, E2 mailatik E3 mailara igotzea proposatzen da aipatu diren funtzioak kontuan hartuz.

Azkenik, aginte faktoreari dagokion balorazio proposamena ez da onartzen, ez dutelako inolako aginterik langileekiko.

4) Azkenik, aldaketa hauek atzeraeraginez aplikatzea eskatu du:

Balorzio berrikuspen araudiak adierazten duen moduan, soilik salbuespenez aplikatu ahal izango da atzeraeraginkortasuna eta justifikaturiko eta arrazoituriko kasuetan. Kasu honetan, akordioa udalbatzak onartzen duenetik aurrera izango da aplikagarria.

Hirugarrena.- Balorzio berrikuspen batzordeak 2025eko maiatzaren 13an egindako bileran, honako balorzio berrikuspene onartzea erabaki zuen:

<u>Faktorea</u>	<u>Balorzio proposamena</u>
Espezializazioa	50
Esperientzia	50
Agintea	0
Oihartzuna	100
A. intelektualak	0
A. Fisikoa	0
Nekagarritasuna	25
Arriskugarritasuna	0
Lanaldia	125
Dedikazioa	0

BERRIKUSPEN PROZEDURA

Lanpostuen balorzioaren berrikuspen prozeduraren barnean, ofiziozko ez ohiko berrikuspenak honako prozedura finkatzen du bere 10.2 puntuan:

“

- Giza Baliabideak Azpisailak, zinegotzi delegatuak (edo alkateak, hala badagokio) aginduta, lanpostuaren funtzio/zereginen eta balorzioaren proposamena aurkeztuko du, gehienez hilabete bateko epean, zinegotziaren probidentziaren dataren biharamunetik kontatzen hasita.*
- Proposamena jakinaraziko zaie dagokion saileko arduradunei (politikoari zein teknikoari), iradokizunak aurkez ditzaten hamabost laneguneko epean, proposamena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*
- Giza Baliabideak Azpisailak aztertuko ditu aurkeztu diren iradokizunak, eta balorzioaren proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin dadin. Horretarako, hamabost laneguneko epea izango du, azken iradokizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.*

- d) *Proposamena langileen ordezkaritzari jakinarazi behar zaio, eta ondoren negoziatu behar da dagokion Balorazio Batzordean. Horretarako, dokumentazioa helaraziko zaio zazpi egun lehenago; dena den, epe hori beste zazpi lanegunez luzatu ahal izango da ordezkari sindikalek horrela eskatuz gero.*
- e) *Proposamenak gastua handitzen badu, kontu-hartzailearen fiskalizazioa beharko du.*
- f) *Balorazio Batzorde Iraunkorrak egindako proposamena Antolakuntza Informazio Batzordeari bidaliko dio, irizpen-proposamen gisa, Giza Baliabideak Azpisailak txostenarekin batera. Ondoren, Udalbatzak dagokion ebazpena emango du.*
- g) *Kasu guztietan, ebazpena interesdunari, saileko arduradunari eta langileen ordezkaritzari jakinaraziko zaie. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da.*
- h) *Lanpostuari dagokion balorazio berria indarrean sartuko da Udalbatzaren ebazpena administrazio-bidean irmoa denetik, eta salbuespenezko eta justifikaturiko moduan, Udalbatzak finkatzen duen unetik.”*

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua b) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen berariazko osagarrien zehaztapenak eta aplikazioa pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, balorazio berrikuspen hau ordezkari sindikalekin negoziatu da 2025eko apirilaren 29an, maiatzaren 6an eta maiatzaren 13an.

ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- "Kirol instalazioetako harreragile" lanpostuaren funtzioak onartzea, hauexek hain zuzen ere:

Erantzukizun orokorrak:

- Atezaintza- eta administrazio-laguntzako lanak egitea.

Lan esanguratsuenak:

ATEZAINZA - ADMINISTRAZIO-LAGUNTZA:

1. Kirol-instalazioak ireki eta ixtea.
2. Kirol-instalazioetarako sarbidea tornuak kontrolatuz zaintzea.
3. Klubek instalazioak behar bezala erabiltzen dituztela zaintzea.
4. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.
5. Kirol-instalazioak erabiltzeko tasak kobratzea eta diru-sarreraren eta gastuen eguneko eta hileko kutxako kontaketa egitea.
6. Zor diren jardueren kuoten eta ordainagirien sortak egitea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

7. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
8. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
9. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
10. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
11. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egoia dela begiratu eta zaintzea.
12. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldez aurretik horretarako jarraibideak jasota.

Bigarrena.- Lanpostu honen balorazioa onartzea:

<u>Faktorea</u>	<u>Balorazio proposamena</u>
Espezializazioa	50
Esperientzia	50
Agintea	0
Oihartzuna	100
A. intelektual	0
B. Fisikoa	0
Nekagarritasuna	25
Arriskugarritasuna	0
Lanaldia	125
Dedikazioa	0

Hirugarrena.- Lanpostuaren sailkapen taldeari dagokionean, C1/C2 bezala sailkatzea eta lanpostuaren titularrak jubilatzen direnean, C1 sailkapen taldera birsailkatzea.

Laugarrena.- Aldaketa hauek udaleko lanpostu zerrendan txertatzea.

Bosgarrena.- Balorazio berrikuspen honen ondorioz, honako gastua onartzea:

Ordainsariak	Gizarte segurantz	GUZTIRA
2.736	902	3.638

Seigarrena.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du kirol-instalazioetako harreragile-lanpostuaren balorazio-berrikuspena.

8. HASIERAKO ONARPENA EMATEA AITZOL UDAL EUSKALTEGIAREN ERREGELAMENDUARI, ERANSKINEAN AZALTZEN DEN ERAN.

Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko maiatzaren 21eko irizpena.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, Garbiñe Marzol Ormazabalek, 2025eko urtarrilaren 22ko probidentzia baten bitartez, xedatu zuela espediente bat hastea, Aitzol Udal Euskaltegiko erregelamendua egiteko.

BIGARRENA.- Aurretiazko kontsulta publikoan ez zela inolako proposamenik jaso.

HIRUGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko apirilaren 16an, erregelamenduaren proposamena egin zuela. Azaldu zuenez, 2014an onartu zen euskaltegiaren araudia, eta zahartua dago hainbat arlotan. Gainera, euskaltegiaren funtzionamendua egokiagoa izan dadin, beste hainbat aldaketa egitea proposatu zuen.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Idazkaritza Saileko teknikariak, 2025eko maiatzaren 15ean, txosten juridikoa igorri duela. Araudi-proposamenaren aldeko iritzia eman du.

BIGARRENA.- Berdintasun Saileko teknikariak ez duela txosten teknikorik igorri, ikusita espedientearen hasieran egin zitzaiola genero-eraginaren aurretiazko txostena, eta jaso zituela Berdintasun Sailaren ekarpenak, 2024ko apirilaren 11n egindako txosten batean.

HIRUGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko apirilaren 16an egindako txostenean, ontzat jo duela proposamena hizkuntza-irizpideei dagokienez.

LAUGARRENA.- Kontu-hartzailatza Saileko teknikariak ez duela beharrezkotzat jo proposamenari buruzko txostena egitea, ikusita zein den erregelamenduaren izaera.

BOSGARRENA.- Udalbatzari dagokiola onartzea, hori xedatzen baitu 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan.

Tolosako Udaleko Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, balorazio-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Aitor Aguirresarobe Murgui, Goiuri Eceiza Arandia, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Iker Uson Gonzalez, Maria Leire Zubeldia Rezola eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio instrukzio organoari

IRIZPENA

LEHENENA.- Hasierako onespena ematea Aitzol Udal Euskaltegiaren erregelamenduari, eranskinean azaltzen den eran.

BIGARRENA.- Erregelamendua eta dagokion espedientearen informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek aztertu, eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, entzunaldia ematea inplikaturako eragileei.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako udaletxeko iragarki-taulan eta Tolosako Udalaren webgunean.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena eman dio Aitzol Udal Euskaltegiaren erregelamenduari, eranskinean azaltzen den eran.

9. ONARTZEA EMETERIO ARRESE ZENTRO SOZIOKULTURALEKO TABERNAREN PREZIOAK EGUNERATZEARI BURUZKO PROPOSAMENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko maiatzaren 21eko irizpena.

IKUSIRIK

LEHENA.- Diruzaintza saileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“LEHENA.- Tolosako Udaleko erregistroan, 2025eko apirilaren 11ean, 2025/5101 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Iñaki Joseba Etxeberria Insaustik, honako eskaera hau egin duela:

«Gizarte zerbitzuak, Ainara Irazustarentzat. Zentro soziokulturalakoa prezio berriak proposamena...»

BIGARRENA.- Gizarte Zerbitzuak eta Osasun saileko arduradunak aldeko txostena egin du ondorengo arrazoietan oinarrituta:

a) Ustiaketa kontratu hori sinatu zenetik, 8 aldiz eguneratu dira bertako prezioak: 2007ko urtarrilaren 29an, 2008ko martxoaren 3an, 2010eko martxoaren 22an eta 2016ko ekainaren 13an Gobernu Batzordeak hartutako erabakietan; 2019ko azaroaren 20an alkate dekretu bidez hartutako erabakiaren bidez; 2022ko maiatzaren 26an Ohiko Osoko Bilkuran, 2023ko maiatzaren 25ean, Ohiko Osoko Bilkuran, eta azkenik, 2024ko ekainaren 27an, hain zuzen ere.

b)- Ikusirik kontratuan ez dela zehazten prezioak eguneratzeko formula objektiborik, eta inguruko herrietako zentru sozialetako prezioekin alderatzea ezinezkoa dela (batetik, ustiapen kontratuetako baldintzak ezberdinak direlako, bestetik, eskaintzen den zerbitzua ere desberdina delako, eta azkenik, kontsumo ohiturak ere ezberdinak direlako), Gizarte Zerbitzuen eta Osasuna Sailak zalantza du aplikatu beharreko irizpide objektiboak zeintzuk beharko luketen.

c) Igoera proposamenaren azalpena argudio hauetan oinarritzen da:

«PROPOSATUTAKO BERRIA PREZIOEN JUSTIFIKAZIOA

Aurten prezioak igotzeko proposamen berria jakinarazteko eta justifikatzeko idazten dizut. Dakizunez, jatetxeen sektoreak, oro har, igo egin ditu prezioak inauteriak baino lehen, sargaien kostuek gora egin dutelako.

Saiatu gara gure prezioak eskuragarri mantentzen, baina iritsi gara puntu batera non kostu operatiboan eta intsumoen igoerak jasanezina egiten duen aurreko tarifei eustea. Osagaien prezioen gorakadak, eguneroko eragiketarekin lotutako beste gastu batzuek eta, batez ere, ostalaritzako hitzarmenak ezarritako soldaten igoerak behartzen gaituzte orain proposatzen dizugun erabaki hau hartzera.

Proposamen berria da produktu guztiak % 4,4 igotzea, 2025erako lehengoratzeko sektorearen KPlaren igoera aplikatzearen ondorioz. Ehuneko hori ostalaritzarekin lotutako taldeen urteko prezioen igoeraren batez bestekoari dagokio Gipuzkoan:

1. Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (% 4,0)

2. Edari alkoholikoen eta tabakoa (% 3,9)

11. Jatetxeak eta hotelak (% 5,4)

Iturria: Adegí. Euskal AEko Kontsumoko Prezioen Indize (KPI) orokorra eta taldeka (urteko batez bestekoak) 2024ko Gipuzkoarako.

Ikus dokumentu hau: DIVERGENCIA IPC GENERAL - IPC GRUPOS DE EUSKADI PARA GIPUZKOA (SECTOR RESTAURACIÓN) 2024

Gure lehentasuna beti izan da gure bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaintzea, eta gure plateren kalitatea arriskuan jarri gabe egiten jarraitu ahal izateko, gure prezioak doitzeko erabaki dugu. Igoera hori gure mahaikideei ahalik eta esperientziarik onena ematen jarraitzeko asmoz proposatzen da. Negozio arduratsua izaten jarraitzeko eta komunitateari ekarpen positiboa egiteko konpromisoa dugu.

Negozioaren bideragarritasun kontua da, eta prezioen doikuntza Gipuzkoako jatetxeen sektorearen errealitateari hurbiltzea.

(Fuente: <https://www.adegi.es/adegi/ipc-evolucion-historica-media-anual/?hcs=RG5Mb6qlyf9VhAfMG8sct4>)»

KONTUAN HARTURIK

LEHENA. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

BIGARRENA. 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, 67.4. artikulua honela dio:

“En los contratos de gestión de servicios públicos los pliegos de cláusulas administrativas particulares, además de los datos expresados en el apartado 2, contendrán los siguientes: ...

Aurkako botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi eta Miren Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, **ez du onartu** EAJ/PNV udal taldeak aurkeztu duen Tolosan merkataritza-lokal hutsak etxebizitza bihurtzeko aukerak aztertzea eta sustatzearen inguruko mozioa.

17. GALTZAUNDI TOLOSALDEKO EUSKALTZALEEN ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkarteak aurkeztu duen mozioak honela dio:

EUSKARAREN AURKAKO SENTENTZIETATIK BABESTU ETA HIZKUNTZA-POLITIKARAKO ARKITEKTURARI BURUZKOA

Gure herriko adineko edota mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako lurreamendi egoitzan lanpostuak egonkortzeko lan-deialdian hizkuntza eskakizunen aurkako epaiaren berri izan dugu.

2024ko udazkenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako 1. aretoko epaileak bertan behera utzi zuen Gipuzkoako Kabia erakundeko egoitzetako laguntzaileen egonkortze prozesua, bertan jasotako euskara ezagutzeko eskakizunak "neurriz kanpokoak" direla argudiatuta. Orain, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak atzera bota du sententzia horren kontra Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako helegitea. KABIA Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari atxikitako organismo autonomoa da, adinekoen eta menpekotasun

egoeran dauden pertsonen zaintzaz arduratzen dena. Hainbat erresidentzia ditu Kabiak, eta horien artean dago Tolosako lurreamendi egoitza. Epai honek, beste behin ere, euskararen biziberritzea oztopatzea du helburu, eta herritarren hizkuntza eskubideen aurkakoa da.

Zerbitzu publikoek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar dituzte eta epai hau kontrako norantzan doa. Herritarrekin zuzeneko harremana izango duten lanpostuetan euskararen ezagutza eskatzeak, herritar guztien eskubide linguistikoak bermatzea ziurtatzen du. Euskaraz artatua izatea ez bada bermatzen, euskara erabiltzea oztopatzen zaie euskaldunei.

Kasu honetan, gainera, adineko egoitzei eragiten die epaiak, gure herrietako sektore zaugarrienetako baten eskubideak urratuz. Adinean aurrera joandakoak edo mendekotasun egoeran dauden herritarrek dira zerbitzua zuzenean jasotzen dutenak eta, egoera horietan are gehiago, zaintza behar bezala jasotzeko benetan erabakigarria da hizkuntza. Pertsona zaugarrienak duintasunez eta beraien hizkuntza erabiliz zaintzeko baldintza eta bermea da lanpostu horietarako hautagai guztiek zerbitzuak eta arreta euskaraz eskaintzeko gaitasuna izatea. Izan ere, zerbitzu publikoek ezin digute gure hizkuntzan aritzeko eskubidea oztopatu. Jasotako sententziak, ordea, Kabia erakundearen baitako egoitzetan euskaraz artatuak izateko bermea ezabatzen die herritarrei.

Gainera, azken urteetan, kontsentsu zabalean oinarritutako eta euskararen biziberritzea helburu duten neurrien kontrako sententziak ugaritzen ari dira auzitegietatik.

Euskararen biziberritzerako politika publikoak berme guztiekin garatzeak duen garrantzia ikusirik eta biziberritze-prozesuaren une erabakigarrian gaudela jakitun izanik, mozio hau sinatzen duten udal-taldeek honakoa adierazten dugu:

1. Tolosako Udalak babes osoa helarazi nahi diote Kabia Foru Organismo Autonomoari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. Horrekin batera, Udal honek epaiari helegitea jartzea eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, lan-deialdiak euskarazko arreta bermatuz aurrera ateratzeko bide horretan prozesua bururaino eramateko.
2. Tolosako Udalak kezka handiz ikusten ditu euskara lan-eskubideekin, talentua erakartzearekin eta kohesio sozialarekin kontrajartzeko egiten diren etengabeko adierazpenak eta erabiltzen diren argudioak. Areago, euskararen garapena kohesio sozialerako, bizikidetzarako eta justizia sozialerako atea izan dela aldarrikatzen du udal honek.

3. Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die bultzatu eta lan egin dezala hizkuntza-eskakizunen sistemari eta, ondorioz, administrazioan euskararen garapenari segurtasun juridikoa emateko beharrezko lege-aldaketen eta hizkuntza-politikan jauzi bat emateko behar diren tresna juridiko berrien garapenaren alde. Era berean, euskararentzat berdintasunezko estatus juridikoa eskuratzearen alde egiteko elkarlana jorratu dezatela eskatzen zaie horretarako eskumena duten erakunde hauei.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Miren Yosune Sanz Vidal, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Aurkako botoak: Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartek aurkeztu duen Euskararen aurkako sententzietatik babestu eta hizkuntza-politikarako arkitekturari buruzko mozioa.

18. GALDERAK ETA ESKAERAK

Besterik gabe, 22:00etan, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, Udal idazkaria naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

UDAL IDAZKARIA

AITZOL UDAL EUSKALTEGIAREN ERREGELAMENDUA

Tolosako Udalak 1982-1983 ikasturtean sortu zuen Aitzol Udal Euskaltegia, udalerriko euskalduntze- eta alfabetatze-beharrei erantzuteko helburuarekin. Herritarren eskubidea da euskara ikastea, eta Tolosan eskubide hori gauzatzeko tresna nagusietako bat da Aitzol Udal Euskaltegia.

Tolosako Udalaren zerbitzua da Aitzol Udal Euskaltegia, eta, helduen euskalduntze-alfabetatzean egiten duen jardunaren bidez, euskararen erabateko normalizazioa lortzea du helburu. Alde horretatik, lankidetzan dihardu bestelako erakundeekin eta eragileekin.

Tolosako Udalak honako erregelamendu hau onartu du, Aitzol Udal Euskaltegiaren funtzionamendua eraginkorrago egiteko eta gaur egungo errealitatera hobeto egokitzeko.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Aitzol Udal Euskaltegiaren izaera eta helburuak

1. Aitzol Udal Euskaltegia Tolosako Udalaren menpeko zerbitzua da, helduen euskalduntzean diharduena.
2. Euskararen normalizazioa lortzea da Aitzol Udal Euskaltegiaren xede nagusia. Horri dagokionez, honako helburu hauek ditu:
 - Pertsona helduei euskara irakastea.
 - Alfabetatu gabeko euskaldunak alfabetatzea.
 - Euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua hedatzea.
 - Ikasleen euskara-maila hobetzea eta euskara-agiriak lortzeko prestatzea.
 - Hizkuntza-plangintzarekin lotutako programak gauzatzea.

2. artikulua. Oinarrizko printzipioak

Oinarrizko printzipio hauen arabera jardungo du Aitzol Udal Euskaltegiak:

- *Curriculum-proiektua.* Aitzol Udal Euskaltegiak une oro indarrean izango du bere curriculum-proiektua, eta horren arabera arituko da. Curriculumak kontuan hartuko du Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC).
- *Jardun didaktiko-pedagogikoa.* HABEren jardun didaktiko-pedagogikoa gauzatuko du Aitzol Udal Euskaltegiak. Horrez gain, egin ahal izango ditu, egoki iritziz gero, bestelako esperientzia pedagogikoak ere.
- *Lankidetzeta eta etengabeko hobekuntza.* Euskaltegia lankidetzan arituko da gainerako udal-euskaltegiekin. Jarduna etengabe hobetzea izango da horren xedea.
- *Euskararen normalizazioa.* Euskaltegiak kontuan hartuko du udalerrian euskara normalizatzeko hizkuntza-plangintza, baita Tolosako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plangintza ere.

II. KAPITULUA: GOBERNUA ETA KUDEAKETA

3. artikulua. *Euskaltegia Tolosako Udalaren organigrama*

Aitzol Udal Euskaltegia Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailaren barruan kokatzen da.

4. artikulua. *Euskararen Aholku Kontseilua*

1. Tolosako Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko Erregelamenduarekin bat etorrita, Kontseiluak ahalmena du Aitzol Udal Euskaltegiarekin lotutako gaiak aztertzeko eta proposamenak egiteko.

2. Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendariak parte hartuko du Euskararen Aholku Kontseiluaren osoko bilkuretan eta batzorde iraunkorraren bileretan.

5. artikulua. *Zuzendaria*

1. Zuzendari bat izango du Aitzol Udal Euskaltegiak, lanaldi erdiko jardunarekin.

2. Honako zeregin hauek izango ditu zuzendariak, aldian aldiko lanpostu-balorazioan ezar daitezkeen bestelako funtzioei kalterik egin gabe:

- Indarrean dauden arauak bete daitezen zaintzea.
- Euskaltegiko baliabideen eta pertsonen funtzionamendua antolatzea, koordinatzea eta ikuskatzea.
- Euskaltegiari atxikitako langileen buruzagi egitea.
- Euskaltegiko langileen kudeaketa egitea: baimenen, prestakuntzen, lizentzien eta oporren oniritzia ematea.
- Irakasle-batzarako deialdiak eta gai-zerrendak prestatzea, eta bileretan buru egitea.
- Ikasturtearen egitasmoa eta urteko memoria prestatzea.
- Euskaltegiaren eskaintza diseinatzea, planifikatzea eta ebaluatzea.
- Aurrekontuak eta dirulaguntzak kudeatzea, eta dagokien dokumentazioa prestatzea.
- Euskaltegiaren komunikazioaz eta publizitateaz arduratzea, komunikazioaren arduradun sailarekin elkarlanean.
- Eskaintza hobetze aldera, harremanak izatea beste eragile eta erakunde batzuekin.
- Udal-euskaltegietako gainerako zuzendariarekin koordinatzea eta, lan-batzorderik sortuz gero, horietan parte hartzea.
- Euskararen Aholku Kontseiluaren bileretan parte hartzea.
- Aitzol Udal Euskaltegiaren ordezkari izatea, titularrak agintzen dionean edo baimena ematen dionean.
- Euskaltegiko jardunarekin lotutako agiriak egitea eta sinatzea.
- Arduradunek ezarritako beste eginkizun batzuk betetzea.

3. Zeregin horiek betetzeko koordinazioan arituko da irakasle-batzarekin eta Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuarekin.

6. artikulua. Idazkari akademikoa

1. Idazkari akademiko bat izango du Aitzol Udal Euskaltegiak, lanaldi erdiko jardunarekin.
2. Honako zeregin hauek izango ditu idazkari akademikoak, aldian aldiko lanpostu-balorazioan ezar daitezkeen bestelako funtzioei kalterik egin gabe:

- Euskaltegiaren egitasmo didaktikoa bideratzea, programazioaren irizpideak finkatuz eta jarraipena eginez, zuzendariarekin elkarlanean.
- Euskaltegiko mailaz mailako materiala txukuntzea eta sailkapena koordinatzea, genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala bereziki kontuan hartuz.
- Sarrera- eta ebaluazio-probak diseinatzea, eta egoki bidera daitezen arduratzea.
- Ebaluazio-bileretarako deia egitea eta akta jasotzea.
- Irakasle-batzaren bileretako aktak jasotzea.
- Irakasleen formazioa osatzeko ikastaroak proposatzea.
- Aurrez aurreko taldeen eta autoikaskuntzako ikasleen ikasturte amaierako memoriak bideratzea eta balorazioa koordinatzea.
- Eskolaz kanpoko ekintzak prestatzea.
- Euskaltegiko antolaketa- eta koordinazio-lanetan zuzendariari laguntzea.

7. artikulua. Irakasleak

Honako zeregin hauek izango dituzte irakasleek, aldian aldiko lanpostu-balorazioan ezar daitezkeen bestelako funtzioei kalterik egin gabe:

- Eskolak ematea, aurrez aurre edo autoikaskuntza bidez, edo beste metodo batzuen bidez, halakorik sortuz gero.
- Euskaltegiko egitasmoa diseinatzean eta memoria egitean parte hartzea.
- Mailako koordinazio-bileretan parte hartzea.
- Koordinazio-bileretan hartutako erabakiak betetzea.
- Sarrera- eta ebaluazio-probak egitea eta ebaluatzea.
- Beren ardurapeko taldeen eta autoikaskuntzako ikasleen memoriak egitea, idazkari akademikoarekin aztertzeke.
- Material didaktikoa sortzea eta probatzea, idazkari akademikoaren gidaritzapean.
- Irakasle-batzaren bileretan parte hartzea.
- Ikasleen asistentzia kontrolatzea, eta, gorabeherarik balego, erregelamendu honetako 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardutea.

8. artikulua. Administrazioa

Honako zeregin hauek izango ditu administrariak, aldian aldiko lanpostu-balorazioan ezar daitezkeen bestelako funtzioei kalterik egin gabe:

- Herritarrei arreta ematea, askotariko bideetatik: aurrez aurre, telefonoz, mezu elektronikoz...
- Euskaltegirako dokumentazioaren erregistroa egitea.
- Ikasleei buruzko informazioa eguneratuta edukitzea: altak, bajak, aldaketak...
- Beharrezko informazioa sartzeari HABEren aplikazioetan.
- Matrikulazioei lotutako administrazio-lanak egitea.

- Euskaltegiko jardunarekin lotutako agiriak egitea.
- Mandatuak, posta, eskaerak, mantenu abisuak eta abar egitea.
- Euskaltegian dagoen ohar-taula antolatzea, eta euskaltegira iristen den prentsa antolatzea.
- Kanpo-ekintzak antolatzeak sortzen dituen tramite-lanak egitea.
- Kontu-hartzailetza eta Diruzaintza Sailari laguntzea matrikulak kobratzen.
- Materialak eta ekipamenduak erostearekin lotutako administrazio-lanak egitea.
- Bere maila profesionalari dagozkion bestelako eginkizunak egitea, zuzendariak edo Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak aginduta.

9. artikulua. Irakasle-batza

1. Euskaltegiari buruzko erabakietarako kontsulta-organoa da irakasle-batza. Hark finkatuko ditu hari dagozkion funtzionamendu-irizpideak.

2. Honako funtzio hauek ditu irakasle-batzak:

- Euskaltegiaren curriculum lantzea eta osatzea.
- Irakaskuntzako jarduerak programatzea.
- Ikasleen ebaluazioari buruzko irizpideak finkatzea eta koordinatzea.
- Esperimentazioan eta ikerketan egitasmoak sustatzea.
- Irakasleak trebatzeko beharrezkoak liratekeen ikastaroak proposatzea HABEri eta Tolosako Udalari.
- HABEk ezarritako ildoak nola bete behar diren hausnartzea eta jorratzea.

3. Euskaltegian ari diren irakasle guztiak dira batzako kide.

4. Euskaltegiko zuzendaria da batzako lehendakaria, eta hari dagokio deialdia eta gai-zerrenda egitea.

5. Irakasle-batza gutxienez hilean behin bilduko da, uztailan eta abuztuan izan ezik.

6. Irakasle-batza biltzeko deialdia gutxienez 48 orduko epearekin egin beharko da, gai-zerrendarekin batera. Presazko bilkurak egin ahal izango dira, deialdirik eta gai-zerrendarik gabe, baldin eta batzako kide guztiak bildu badira eta aho batez hala erabaki badute.

7. Irakasle-batzaren bilerak baliozkoak izan daitezen, kideen gehiengo osoa izango da quoruma. Halakorik ez balitz, bigarren deialdian eratuko da batza, lehen datatik 24 ordu, eta aski izango da kideen herenak biltzea, betiere hiru kide bertan badira.

8. Erabakiak gehiengo absolutuz hartuko dira. Berdinketarik gertatuz gero, irakasle-batzako lehendakariaren boto kualifikatuak erabakiko du auzia.

9. Bilera bakoitzaren ondoren, akta egingo du idazkari akademikoak —eta hura ez balego, irakasle-batzako kiderik gazteenak, baldin eta euskaltegira ikasturte horretan iritsi ez bada—, lehendakariaren onespenez. Aktan jasoko dira honako hauek: bileraren eguna eta lekua, aztertutako puntuak, bozketen emaitzak eta erabakien edukia. Aktak bilera horretan bertan edo hurrengoan onartuko dira, eta, onartu orduko, Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuari helaraziko zaizkio. Orobat, akta guztiak egongo dira irakasle guztien esku.

III. KAPITULUA: IKASLEEN ANTOLAKETA

10. artikulua. Euskaltegian izena ematea

1. 16 urtetik gorako herritarrek eman dezakete izena euskaltegian.
2. Euskaltegian matrikulatzeko, sarrera-proba egin beharko dute ikasle gaiek, haien hasierako maila zein den zehazteko. Probaren emaitzaren arabera, euskaltegiak erabakiko du ikaslea zein mailatan kokatu, curriculumaren barruan.
3. Sarrera-proba egiteko salbuetsita geratuko dira A0 mailan hastekoak direnak eta mailaren bat egiaztatu berri dutenak.
4. Euskaltegiak irailean egingo du ohiko matrikulazio-epea, eta, beharko balitz, urtarri hasieran egingo du beste izen-emate laburrago bat.
5. Ikasturtea hasi aurretik, maiatz-ekainean, aurrematrikulazio-epea irekiko da. Orduan izena emateak ez du berehalako ondorioz izango matrikulan, irailean berretsi beharko baita, baina, ikasle gehiegi izanez gero, kontuan izango da aurrematrikulatu izana.
6. Euskaltegiko matrikula bi eratara egin ahal izango da, kalterik egin gabe 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri-administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan aipatutako bideei:
 - a) Euskaltegian bertan, aurrez aurre, idazkaritzako ordutegian.
 - b) Erregistro elektronikoaren bidez. Kasu horretan, eskatzailearekin adostuko da zer bidetatik egin sarrera-proba, artikulua honetako 2. puntuan aipatzen den eran.
7. Ikasleen datuak jasotzean, kontuan hartuko dira generoa jasotzeko hiru aldagaiak (*gizona, emakumea, bestelako generoak / bestelako identitateak*).

11. artikulua. Gutxieneko eta gehieneko ikasle-kopurua

1. Ikastaldeak osatzeko gutxieneko kopurua HABEren urteroko jarraibideetan zehaztutakoa izango da.
2. Ikastaldeetako gehieneko kopurua, HABEk ikasturte bakoitzeko jarraibideetan jar ditzakeen mugei kalterik egin gabe, honako hau izango da:
 - A1, A2, B1 eta B2 mailatan: 15 ikasle.
 - C1 mailan: 12 ikasle.
 - C2 mailan: 9 ikasle.
3. C1 eta C2 mailatan, aurreko puntuan jarritako gehieneko kopuruak areagotu ahal izango dira ezohiko kasuetan, gehienez ere % 20.
4. Autoikaskuntzaren kasuan, ikasturte bakoitzean zehaztuko da zenbat leku eskaini, aurrez aurreko taldeen ordu-bolumenaren eta euskaltegiko irakasleen eskola-orduen arabera.

12. artikulua. *Ikasleak onartzea eta itxaron-zerrenda*

1. Ohiko matrikula-garaian, aurrez aurreko eta jardun biko talde bakoitzean eskainitako leku-kopurua gainditzen bada, irizpide hauen arabera hautatuko dira ikasleak, ordena honetan:

1. Aurreko ikasturtean Aitzol Udal Euskaltegian aritu diren ikasleak, betiere aurreko ikasturtean aprobetxamendu egokia izan badute.
2. Aurrematrikula egin dutenak.
3. Tolosan erroldatuak.
4. Tolosaldean erroldatuak.
5. Sarrera-proban emaitzarik onena izan dutenak.
6. Aurrez beste euskaltegi batean arituak.

Aurreko irizpideak aplikatuta berdinketarik badago, zozketa egingo da.

2. Ohiko matrikula-garaian, autoikaskuntzan eskainitako leku-kopurua gainditzen bada, irizpide hauen arabera hautatuko dira ikasleak, ordena honetan:

1. Aurreko ikasturtean Aitzol Udal Euskaltegian aritu diren ikasleak, betiere aurreko ikasturtean aprobetxamendu egokia izan badute.
2. Aurrematrikula egin dutenak.
3. Tolosan erroldatuak.
4. Tolosaldean erroldatuak.
5. B1 mailako edo hortik gorako ikasleak.
6. Sarrera-proban emaitzarik onena izan dutenak.
7. Aurrez beste euskaltegi batean arituak.

Aurreko irizpideak aplikatuta berdinketarik badago, zozketa egingo da.

3. Lekurik gabe geratu diren ikasleagiekin itxaron-zerrenda osatuko da. Aurrez aurreko ereduari eta jardun bikoan, talde bakoitzak bere itxaron-zerrenda izango du; autoikaskuntzan, berriz, itxaron-zerrenda bakarra izango da. Itxaron-zerrendetako hurrenkera 12.1 eta 12.2 artikuluen arabera finkatuko da.

4. Ikasturteko lehen hiruhilekoan, bajak jaso ahala, euskaltegia itxaron-zerrendako ikasleagiekin jarriko da harremanetan, eskoletan hasia proposatzeko. Urtarrileko matrikulaldia bukatzen denetik aurrera ez da onartuko ikasle berririk, ikasturtearen martxa ez eragozteko.

5. Aurreko puntuan adierazitakoa aldatu ahal izango da baldin eta taldeko irakasleak egoki irizten badio, eta ikasleak sarrera-proban behar besteko maila erakutsi badu.

6. Euskaltegiak, bi eguneko epean, hiru abisu-ahalegin egingo ditu itxaron-zerrendako ikasleagiarik eskoletan hasia proposatzeko. Abisu horiek telefonoz, posta elektronikoz edo ikasleagiarekin berehala komunikatzeko aukera ematen duen beste edozein bidetatik egingo dira; eta hark 24 orduko epean onartu edo baztertu beharko du proposamena. Uko eginez gero, zerrendako hurrengoari egingo zaio eskaintza.

13. artikulua. Matrikulazio-epetik kanpo jasotako izen-emateak

1. Iraileko matrikulazio-epetik kanpo jasotako izen-emateak honela kudeatuko dira, betiere urtarilaren 15a baino lehen egin bada eskaera:

- a) Eskatutako taldean edo autoikaskuntzan lekurik badago, ikaslea zuzenean sartuko da.
- b) Lekurik ez badago, itxaron-zerrendan sartuko da, ohiko matrikula-epetan izena eman dutenen atzetik. Epez kanpoko izen-emateei ez zaizkie aplikatuko 12.1 eta 12.2 artikuluetan zehaztutako irizpideak: izena emandako ordena izango da irizpidea.

2. Urtariletik aurrerako izen-emateak ez dira itxaron-zerrendan sartuko. Euskaltegiak gorde egingo ditu izenak, eta, hurrengo ikasturterako aurrematrikulazioa irekitzean, haiekin harremanetan jarriko da, aurrematrikula egitea proposatzeko. Aurrematrikulaziotik kanpo egindako izen-emate horrek ez du inolako baliorik izango matrikulazioari dagokionez.

14. artikulua. Asistentzia

1. Aurrez aurreko ikasleak hamar eskola egunez jarraian huts egiten badu eskoletara inolako justifikaziorik gabe, baja emango zaio. Horren aurretik, bosgarren eta zortzigarren egunean, euskaltegiak bi abisu bidaliko dizkio ikasleari (telefonoz, posta elektronikoz edo berehala komunikatzeko aukera ematen duen edozein bideetatik). Eginbide batean jasoko da egindako abisuen berri, eta baja emango zaio automatikoki. Matrikula osoa ordaindu beharko du ikasleak.

2. Irakasleak kontsideratuko balu ikasle baten hutsegiteek taldearen erritmoa atzeratzea dakartela, ikasleari ohartaraziko dio horretaz, jarrera zuzendu dezan, eta horren berri emango dio zuzendariari. Hutsegiteek bere horretan jarraitzen badute, txostena egingo du zuzendariak, irakaslearen eskariz, eta alkateak edo zinegotzi delegatuak ebazpena egingo du matrikula eteteari buruz. Matrikula bertan behera utziz gero, osoa ordaindu beharko du ikasleak.

3. Autoikaskuntzan, ikasle baten hutsegiteek aurrerabide akademikoa trabatzea badakarte (bi tutoretzatan jarraian huts eginda), irakasleak ohartarazpena egingo dio ikasleari, jarrera zuzendu dezan, eta horren berri emango dio zuzendariari. Hutsegiteek bere horretan jarraitzen badute, txostena egingo du zuzendariak, irakaslearen eskariz, eta alkateak edo zinegotzi delegatuak ebazpena egingo du matrikula eteteari buruz. Matrikula bertan behera utziz gero, osoa ordaindu beharko du ikasleak.

15. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Aitzol Udal Euskaltegiak jasotako informazioa eta datuak babesten dituzte Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena).

16. artikulua. Ikasgela lekualdatuak

1. Kolektibo jakin batzuei zerbitzu hobea emate aldera, euskaltegiak aukera izango du ohiko egoitzatik kanpo ikastaroak emateko.
2. Ikasgela lekualdatu horiek sortzeko, baimena eman beharko du euskaltegiaren titularrak, eta HABEri jakinaraziko zaio, hark ere baimena eman dezan.

IV. KAPITULUA: IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

17. artikulua. Ikasleen eskubideak

Honako eskubide hauek dituzte Aitzol Udal Euskaltegiko ikasleek:

- Kalitatezko irakaskuntza jasotzea.
- Norbere duintasuna errespetatua izatea, inolako tratu iraingarririk jaso gabe.
- Inolako diskriminaziorik ez jasatea, izan sexuagatik, arrazagatik, koloreagatik, jatorriagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, desgaitasunagatik, adinagatik, sexu-joeragatik, genero-identitateagatik, gizarte-bazterketako egoeran egoteagatik, edo beste edozein inguruabar pertsonal, sozial edo administratibogatik.
- Bere iritzia entzuna izatea honako gai hauetan: instalazioen eta zerbitzuen egoera, eskoletako jardun, euskaltegiaren funtzionamendu eta abarretan.
- Zuzenean dagozkien arazoetan entzuna izatea.
- Kezkak, iradokizunak eta kexak aditzera ematea

18. artikulua. Ikasleen betebeharrak

Honako betebeharrak hauek dituzte Aitzol Udal Euskaltegiko ikasleek:

- Dagozkien eskoletara joatea, eta garaiz iristea.
- Jokabide zuzena edukitzea irakasleekin, ikaskideekin eta beste kideekin.
- Euskaltegiaren irakaskuntza-sistema, programazioa eta egitura errespetatzea.
- Irakasleak hala erabakiz gero, taldez edo mailaz aldatzea. Erabaki hori modu arrazoiatuan justifikatu beharko du irakasleak, eta era egokian jakinarazi ikasleari.
- Matrikula dagokion epean ordaintzea.
- Egoitzan ikusitako edozein anomalia, gorabehera edo arazo berehala jakinaraztea.

19. artikulua. Eskubideen eta betebeharren berri ematea

Matrikula egitean, araudi honetako dagozkion atalak helaraziko zaizkio ikasle bakoitzari.

V. KAPITULUA: ZEHAPEN-ARAUBIDEA

20. artikulua. Arau-hauste mailak

1. Araudi honetan aurreikusitako arauak ez betetzeak berekin ekarriko du arau-hauste bat, eta, ondorioz, dagozkion zehapenak ezarriko dira. Horrez gainera, aintzat hartuko dira gai honi buruzko beste xedapen arautzaile batzuetan jasota dauden aurreikuspen espezifikoak ere.

2. Arau-hausteak hiru mailatakoak izan daitezke: arinak, larriak eta oso larriak.

21. artikulua. Arau-hauste arinak

Jokabide hauek arau-hauste arintzat joko dira:

- Erabiltzaileen edo langileen bati modu desegokian hitz egitea.
- Ez jakinaraztea erabiltzaileak berak eragindako funtzionamendu-arazoak, hausturak edo kalteak.
- Ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementu higigarri edo higiezinak hondatzea, konpontzeko kostua 600 eurotik beherakoa denean.
- Araudi honetako 18. artikuluko betebeharrak ez betetzea, baldin eta horren ondorioa ezin bada larritzat jo.

22. artikulua. Arau-hauste larriak

Jokabide hauek arau-hauste larritzat joko dira:

- Instalazioak, materiala edo ekipamendua modu desegokian erabiltzea, erabilera desegoki hori arau-hauste oso larritzat jotzeko baldintzak betetzen ez direnean.
- Ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementu higigarri edo higiezinak hondatzea, konpontzeko kostua 601 eurotik 1.500 eurora artekoa denean.
- Erabiltzaileei edo langileei ahoz eraso egitea.
- Euskaltegiaren ordutegiak eta funtzionamendua ez errespetatzea.
- Tabakoaren, alkoholaren eta substantzia estupefazianteen kontsumoari buruzko indarreko araudia ez betetzea.
- Dagokion tasa, prezio publikoa edo tarifa ez ordaintzea.
- Irudiak edo soinua hartzea edozein gailu elektronikoren bidez, berariazko baimenik gabe.
- Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea. Urtebetean bi huts arin egitea arau-hauste larritzat joko da.

23. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Jokabide hauek arau-hauste oso larritzat joko dira:

- Zerbitzu publikoaren ohiko funtzionamendua eragoztekoa edo larriki eta nabarmenki oztopatzea.

- Instalazioetako langileei edo erabiltzaileei eraso egitea, edo bizikidetza nabarmen nahastea, eta, halaxe, larriki eta zuzenean eragitea instalazioetako lasaitasunari. Beti huts oso larritzat joko da erabiltzaile adingabeei edo mugikortasun urriko pertsonen tratu txarra ematea, ahoz edo ekintzaz, edo edozein erabiltzailearen kontra indarkeria erabiltzea.
- Beste erabiltzaile batzuei jazarpen fisikoa, morala edo sexuala egitea.
- Beste erabiltzaile batzuei beren legezko eskubideak erabiltzen ez uztea; direla Araudi honek ematen dizkien eskubideak, edo direla aplikatzekoa den beste edozein arau juridikok ematen dizkienak.
- Ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak eta elementu higigarri edo higiezinak larriki eta nabarmenki hondatzea, konpontzeko kostua 1.501 eurotik gorakoa denean.
- Larrialdi eta Ebakuazio Planerako beharrezko elementu hauek lapurtu, txikitu edo hondatzea: alarmak, fitxak, txalekoak, su itzalgailuak, kartelak...
- Segurtasun-araudia ez betetzea.
- Instalazioen barruan alkohola, droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikotropikoak kontsumitu edo saltzea.
- Inoren ondasunak legez kontra hartzea.
- Nortasunari, adinari eta beste alderdi batzuei buruzko datuak nahita faltsutzea eta nortasuna iruzurrez ordeztzea.
- Aurretik ezarritako zigorren bat ez betetzea.
- Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea. Urtebetean hiru huts larri eginez gero, arau-hauste oso larritzat joko da.

24. artikulua. Zehapen-motak

1. Arau-hauste arinei zehapen hauetako bat edo batzuk ezarriko zaizkie:

- 50 eta 750 euro arteko isuna.
- Gehienez hogeita hamar egunez euskaltegira joateko eta erabiltzaile izateko eskubidea galtzea.

2. Arau-hauste larriei zehapen hauetako bat edo batzuk ezarriko zaizkie:

- 751 eta 1.500 euro arteko isuna.
- Hogeita hamaika egunetik urtebetera bitarte euskaltegira joateko eta erabiltzaile izateko eskubidea galtzea.

3. Arau-hauste oso larriei zehapen hauetako bat edo batzuk ezarriko zaizkie:

- 1.501 eta 3.000 euro arteko isuna.
- Urtebete eta egun batetik bost urtera bitarte euskaltegira joateko eta erabiltzaile izateko eskubidea galtzea.

25. artikulua. Zehapenak erabakitzeako irizpideak

Isuna zenbatekoa izango den eta erabiltzaile-eskubideak zenbat denboraz galduko diren zehazteko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Ea araua nahita hautsi den.
- b) Ea araua behin eta berriz hautsi den.
- c) Zer-nolako kalteak eragin diren.
- d) Zer-nolako erruduntasuna egotz dakiokeen arau-hausleari.

26. artikulua. Zehapenaren ondorioak

Arau-hausleak leheneratu eta berriro egin beharko ditu hondatutako ondasunak, eta eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko ditu. Zigor-espedientearen ebazpenean finkatuko da ordaindu beharreko zenbatekoa.

27. artikulua. Prozedura eta zehapen-espedienteen tramitazioa

1. Euskara eta Hezkuntza Saila arduratuko da zehapen-prozedurak izapidetzeaz.
2. Legez hala dagokion kasuan, kautelazko neurriak hartuko ditu organo eskumendunak. Honako neurri hauek hartu ahal izango ditu:
 - Instalazioetarako sarrera debekatzea.
 - Elementu, bitarteko, tresna eta objektuak kentzea.
 - Legeek interesdunen eskubideak babesteko aurreikusten dituzten gainerako neurriak, edo ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen direnak.
3. Hartutako kautelazko neurrien iraupena konputagarria izango da gerora ezar daitekeen zehapena betetzeko.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratzen da Tolosako Udalbatzak 2014ko maiatzaren 27an onartutako Aitzol Udal Euskaltegiaren barne-araudia.

Azken xedapena

Araudia indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Eranskina - Emeterio Arrese Zentro Soziokulturaleko tabernaren prezioak

ZENTROKO PREZIOAK ZERRENDA				
MARTXOA 2025	€	JUBILATUAK PREZIOAK 2024 (onartuta)	JUBILATUAK PREZIOAK 2025 KPI % 4,4 IGOERA APLIKATUTA	
	PVP 2025		PROPOSAMENA BERRIA	PREZIOAK BOROLBIDUTA
ARDOAK /vinos				
TXIKITO / txikito	1,00	0,75	0,78	0,80
ARDO BEREZIA / vino especial	1,60	1,30	1,36	1,40
MOSTO	1,50	1,25	1,31	1,30
1/2 MOSTO	1,00	0,70	0,73	0,75
SAGARRA /manzana	1,50	1,25	1,31	1,30
1/2 SAGARRA / 1/2 manzana	1,00	0,70	0,73	0,75
ARDO BOTILA /botella vino	5,70	4,70	4,91	4,90
KRIANTZA - CRIANZA	2,20	2,05	2,14	2,15
SAGARDO TXIKITO/sidra	1,20	0,90	0,94	1,00
TXAKOLI TXIKITO	2,30	2,05	2,14	2,20
APERITIBOAK/aperitivos				
VERMOUTH	3,00	2,50	2,61	2,60
CAMPARI	2,90	2,45	2,56	2,50
BITTER CINZANO	2,90	2,25	2,35	2,35
BITTER KAS	2,90	2,25	2,35	2,35
MARIANITO	2,50	2,05	2,14	2,20
BITER + CAMPARI	3,50	2,70	2,82	2,80
MARIANITO + CAMPARI	3,30	2,60	2,71	2,70
ANISAK/ anises				
ASTURIANA MONO MARI BRIZARD				
CHINCHON	2,80	2,55	2,66	2,60
PATXARAN NAVARRA	2,80	2,55	2,66	2,70
PATXARAN ETXEKO	2,80	2,60	2,71	2,70
1/2 PATXARAN, ANIS	2,50	2,30	2,40	2,40
TXUPITOAK /Chupitos				
BAILEYS	3,50	3,00	3,13	3,20
FRUTAS	2,90	2,70	2,82	2,80
ORUJO HIERBAS	2,90	2,50	2,61	2,60

ESKU9c206d1d-7c26-46c5-93c3-120a2b32ee87

ZENTROKO PREZIOAK ZERRENDA				
MARTXOA 2025	€	JUBILATUAK PREZIOAK 2024 (onartuta)	JUBILATUAK PREZIOAK 2025 KPI % 4,4 IGOERA APLIKATUTA	
	PVP 2025		PROPOSAMENA BERRIA	PREZIOAK BOROLBIDUTA
KOÑAKAK /Coñacs				
SOBERANO	2,80	2,60	2,71	2,70
MAGNO	3,70	3,40	3,55	3,55
CARLOS I	7,30	6,55	6,84	6,80
TORRES 10	3,70	3,40	3,55	3,55
TORRES 5	3,00	2,80	2,92	2,90
GINEBRAK / Ginebras				
MG,LARIOS,GORDONS	2,90	2,70	2,82	2,80
BEEFFEATER	4,60	4,25	4,44	4,40
RONAK /Rones				
CACIQUE,BARCELO	4,60	4,05	4,23	4,20
HABANA 3	3,70	3,35	3,50	3,50
HABANA 7	6,10	5,30	5,53	5,50
WHISKY /Whiskys				
JB,BALLANTINES,WHITE LABEL	4,80	4,20	4,38	4,40
	€			
KONBINAZIOAK/ combinaciones				
LIKOR	6,50	5,90	6,16	6,20
MG,LARIOS,GORDONS	6,30	6,00	6,26	6,20
BEEFFEATER	7,00	6,30	6,58	6,50
CACIQUE,BARCELO	7,00	6,00	6,26	6,30
HABANA 7	7,50	6,50	6,79	6,80
KALIMOTXO	4,00	3,30	3,45	3,50
LEJIA	3,60	3,10	3,24	3,30
CAVA BOTILA	16,00	14,00	14,62	14,60
BENJAMIN	4,50	4,30	4,49	4,40
CAVA KOPA	3,50	3,00	3,13	3,10
ARDO OPAROAK/vinos dulces				
MALAGA	2,60	2,30	2,40	2,40

ZENTROKO PREZIOAK ZERRENDA				
MARTXOA 2025	€	JUBILATUAK PREZIOAK 2024 (onartuta)	JUBILATUAK PREZIOAK 2025 KPI % 4,4 IGOERA APLIKATUTA	
	PVP 2025		PROPOSAMENA BERRIA	PREZIOAK BOROLBIDUTA
MOSCATEL GOYA	2,60	2,00	2,09	2,10
GARAGARDOAK/ cervezas				
KAÑA	2,70	2,30	2,40	2,40
ZURITO	1,70	1,35	1,41	1,40

	€	JUBILATUAK PREZIOAK 2024 (onartuta)	JUBILATUAK PREZIOAK 2025 KPI % 4,4 IGOERA APLI- KATUTA	
	PVP 2025		PROPOSA- MENA BERRIA	PREZIOAK BO- ROLBIDUTA
FRESKAGARRIAK/refrescos				
KAS,COCA-COLA,TONICA	2,5	2,20	2,30	2,30
AGUA PEQUEÑA	1,40	1,10	1,15	1,15
AGUA GRANDE	3,00	2,70	2,82	2,80
ZUMOS VARIADOS	2,50	2,30	2,40	2,40
KAFEAK ETA INFUSIOAK				
cafes e infusiones				
HUTSA	1,60	1,30	1,36	1,40
EBAKIA	1,70	1,40	1,46	1,50
KAFESNEA	1,80	1,50	1,57	1,60
DESKAFEINATUA HAUNDIA	1,80	1,50	1,57	1,60
DESKAFEINATUA TXIKIA	1,70	1,40	1,46	1,50
INFUSIOAK	1,90	1,50	1,57	1,60
KAFE KOÑAKA, ANISA	2,50	2,05	2,14	2,15
INFUSIOA ANISA	2,70	2,05	2,14	2,15
COLA-CAO	2,10	1,85	1,93	1,95

	€	JUBILATUAK PREZIOAK 2025 KPI % 4,4 IGOERA APLI- KATUTA		
	PVP 2025	JUBILA- TUAK PRE- ZIOAK 2024 (onartuta)	PROPOSA- MENA BERRIA	PREZIOAK BO- ROLBIDUTA
ESNEA TXIKIA	1,60	1,30	1,36	1,40
ESNEA HAUNDIA	1,80	1,40	1,46	1,50
KAFESNEA EDALONTZIAN	2,00	1,60	1,67	1,70
BATZUK /varios				
PINTXO NORMALA	2,00	1,80	1,88	1,90
PINTXO BEREZIA	2,30	2,00	2,09	2,10
EGUNEKO MENUA /MENU DEL DIA	14,00	10,90	11,38	11,30
astelehenetik larunbata arte. Lehen plater, bigarren plater, postre. Ura, ardoa, ogia. Kaferik gabe.				
De lunes a sabado. Primer plato, segundo plato, postre. Agua , Vino, casera. Pan. Sin café				
racion de pan extra/ogia extra razioa	0,50	0,30	0,31	0,30
IGANDEKO MENUA/Menu do- mingo	22,00	15,55	16,23	16,00
Igandea . Lehen plater, bigarren plater, postre. Ura ,ardoa, ogia. Kaferik gabe.			0,00	
Domingo. Primer plato, segundo plato, postre. Agua , Vino especial, casera, sidra. Pan. Sin café				
JAI MENUA /MENU FESTIVO	25,00	18,60	19,42	19,40
Egutegiko jaiak. Lehen plater, bigarren plater, postre. Ura ,ardoa, ogia. Kaferik gabe.				
Festivos de calendario. Primer plato, segundo plato, postre. Agua , Vino especial, casera, sidra. Pan. Sin café				
IÑAUTERIKO MENUA /MENU CARNAVALES	36,00	34,00	35,50	35,50
ZALDUNITA, Astelehenita, ASTEARTITA, Lehen plater, bigarren plater, postre. Ura ,ardoa,sagardoa, ogia. Ka- fea.				
Domingo, Lunes, Martes carnaval. Primer plato, segundo plato, postre. Agua , Vino crianza, casera, sidra. Pan. Café				
UMEENTZAKO MENUA / MENU INFANTIL	13,00	12,00	12,53	12,50

	JUBILATUAK PREZIOAK 2025 KPI % 4,4 IGOERA APLI- KATUTA			
	€ PVP 2025	JUBILA- TUAK PRE- ZIOAK 2024 (onartuta)	PROPOSA- MENA BERRIA	PREZIOAK BO- ROLBIDUTA
ERAMATEKO MENUA /MENU PARA LLEVAR	11,00	9,55	9,97	10,00
De lunes a sabado. Primer plato, segundo plato, postre. astelehenetik larunbata arte. Lehen plater, bigarren plater, postre.				
IGANDEKO MENUA ERAMA- TEKO/ MENU PARA LLEVAR DOMINGO	15,00	13,40	13,99	14,00
Domingo. Primer plato, segundo plato, postre. Igandea . Lehen plater, bigarren plater, postre.				
JAI MENUA ERAMATEKO/ MENU PARA LLEVAR FES- TIVO	18,00	15,50	16,18	16,20
Festivos de calendario. Primer plato, segundo plato, postre. Egutegiko jaiak. Lehen plater, bigarren plater, postre.				
Proposamen berriaren justifi- kazioa				
Lehengaien, elikagaien eta edarien, energiaren (gasa, elktrizitatea, erregaia), garraioaren eta langileen soldaten igoeraren ondorioz, beharrezkotzat jotzen dugu prezioak igotzea, 2025ko bigarren hiruhileko honetan merkatuaren errealitatera egokitzeko eta ordainketei aurre egitea.				
Debido al aumento de precio tanto de las materias primas, alimentación y bebidas, como de la energia (gas,elc- tricidad, combustible), del transporte, y la subida de sueldos de los trabajadores,consideramos necesario el incre- mento de los precios para ajustarnos a la realidad del mercado y hacer frente a los pagos en este segundo tri- mestre de 2025.				
La nueva propuesta consiste en aumentar un 4,4 % todos los productos que es el resultado de aplicar la subida del IPC del sector restauracion para 2025.				
Proposamen berria da produktu guztiak % 4,4 igotzea, 2025erako lehengoratzte sektorearen KPIaren igoera apli- katzearen ondorioz.				



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IPLE0005-2025/05/29ko akta/2025/05/29ko akta ()